

TXILLARDEGI

**SANTA KLARA
GURE UHARTE EZEZAGUNA**



**Donostia-San Sebastián
2004**



-
-
-

dr. camino institutua

instituto dr. camino

**Publicaciones del
INSTITUTO DR. CAMINO DE HISTORIA DONOSTIARRA
KUTXA FUNDAZIOA - FUNDACION KUTXA**

Col. "Temas Donostiarra", núm. 33

INSTITUTO DR. CAMINO

Director:

J. IGNACIO TELLECHEA IDIGORAS

Edita: © KUTXA FUNDAZIOA - FUNDACION KUTXA
Getaria, 19
20005 Donostia-San Sebastián.
Teléfs. 943 44 08 63
 943 44 12 61
Fax 943 44 12 65
edicionesfkutxa@kutxa.es

Michelena artes gráficas, s.l.
Astigarraga (Gipuzkoa)

D.L.: SS-0790/04
I.S.B.N. 84-7173-448-6

Argitaratzaileak ez du bere gain hartzan ez erantzukizunik ez atxikimendurik liburu honetan egileak adierazten dituen iritziea buruz.

El editor no se responsabiliza ni se vincula con las opiniones manifestadas en este libro por el autor.

Guztiz debekatuta dago liburu hau bere osoan edo zati batean erreproduzitzea, hala nola edozein sistema informatikotan edo bestelako almacenamiento edo informazio-lorpenekotan sartzea eta edozein modutan edo dena-delako baliabide erabiliz transmititzea, baliabide hori elektronikoa, mekanikoa, fotokopia, grabazio nahiz bestelako metodozkoia izanda ere. Kutxa Fundazioaren aldez aurretiko eta idatzizko baimenik gabe.

Queda totalmente prohibida la reproducción total o parcial de este libro, así como su incorporación a cualquier sistema informático u otro tipo de almacenamiento o recuperación de información y su transmisión en cualquier forma o por cualquier medio, sea éste electrónico, mecánico, por fotocopia, por grabación u otros métodos, sin el permiso previo y por escrito de la Fundación Kutxa.

Liburuan agertzen diren fotoak, egilearenak edo "Fototeca"renak dira eskuarki. Interes edo balio berezia dutenek, berriz, izkribuan bertan eramatzen dute beren jatorriaren aipamena.

jone-ri

INDICE GENERAL

Aurkezpena / Presentación 9-11

SANTA KLARA GURE UHARTE EZEZAGUNA

0. Antiguatik Santa Klara Uharterantz	17
1. Donostia aurrea: bi uharte	19
2. Uhartea eta Itzurun	27
3. Asis-ko San Frantzisko Uhartean	35
4. Ermita zaharraren bila	41
5. Iturri zaharra	65
6. Ihiztarien txabola	71
7. 1864: Farolaren eraikuntza	81
8. Arribizketa	91
9. Dorrezainen patu hitsa	101
10. “Ugartearren Adiskideak”	111
Bibliografia	141
Santa Klara uhartea (kolorezko bilduma)	145

Resumen del libro en lengua española

0. Hacia la Isla a partir del Antiguo	163
1. Dos islas en el viejo San Sebastián	165
2. La Isla e Itzurun	167
3. San Francisco de Asís en la Isla	169
4. En busca de la vieja Ermita	171
5. La Fuente Vieja	175
6. La Casetas de Cazadores	177
7. Noticias del Faro	179
8. Arribizketa	181
9. El triste sino de los torreros	183
10. “Los Amigos de la Isla”	185
Apéndices	191

AURKEZPENA

Oker dabilta liburu honetan Donostiako Santa Klara uharteari buruzko gai guztiz sakonei buruzko jardun lehor batekin topo egiteko beldur direnak. Aitzitik, egileak uharte horretaz sentitzen duen txera darion lan maitagarri batekin egingo baitu topo irakurleak. Eta horrek meritu berezi bat du ikusten dugunean bere atzean Donostiako uharteari buruzko datu, gertakari, historia txiki eta handi pila baten bilketa- eta azterketa-lana dagoela.

Ikuspegi bat baino gehiagotatik aztertzen badu ere, historikoa, soziolinguistikoa eta geografikoa nagusitzen dira batik bat. Egilearen jakinduria zabalak, eta batez ere hainbat hizkuntza –bere euskara maitetik hasita– menderatzeak, iturri askotatik edateko aukera ematen diote, horrek kontzeptuak, hitzak, esaldiak, modismoak, leku-izenak, etab. hobeto ulertzeko ematen duen abantailarekin. Txillardegi, alde horretatik begiratuta, itxitzat edo ulertzeko zaitzat jotzen ziren gaien berrinterpretatzale modura ageri zaigu zenbaitetan.

Hizkuntza-gaitasun horrek jatorrizko liburua goitik behera euskaraz, euskara aberats eta aldi berean errazaz, idazteko aukera ematen dio, irakurleak aise ulertzeko moduan landutako estilo eta formekin. Eta ulertzeko erraztasun hori areagotu egiten da bere ideiak euskarazko testuan plano, argazki, koadro, grabatu, dokumentu, etab. ekin egokiro tartekaturik jartzen dituelako.

Egileak berak, gainera, gaztelaniazko laburpen zabal bat egin du kapituluz kapitulu, bere uharte maitearen aldeko mezua pertsona guztienaga iritsarazteko. Bestalde, tradiziozko iturrietan oinarritu bada ere, oso egokiro baliatu da bere harreman pertsonalez, horrela ezagutza-arlorik desberdinenetako lankide, espezialista edo zale pila bat biltzea lortuz.

Liburu honetan jalkitzen dira, besteak beste, uhartearen izateari egotz dakizkiodeen lehen albisteak –uste baino zaharragoak– eta Santa Klara izenaren jatorria, mendeetan zehar izan diren instalazio eta aurkitu diren hondakinak, uharteak hiriaren historia erlijioso, zibil eta militarrean izan duen parte-hartzea, bertako instalazioak eta, bertako itsasargien jarduera eta itsasargizainen eta bestelako biztanleen bizitza, uhartea penintsula bihurtzeko egin izan diren hainbat saio, eta, azkenik, uharteak badiako eta hiriko gainerako elementuekin izan dituen harremanak.

Santa Klara uhartea ezagutzen duela uste duen irakurleak, uste baino askoz gauza gehiago eta askotarikoagoak aurkituko ditu hemen, seguru asko, eta eskertu egingo du informazio hori guztia. Eta gure uhartetxoaren –hiri barruan, baina bereiz samar dagoen mundutxo honen– ezagutzan lehen urratsak egin nahi dituenari, berriz, horretarako tresna egoki bezain atsegina gertatuko zaio liburu hau.

DR. CAMINO INSTITUTUA
KUTXA - GIPUZKOA DONOSTIA KUTXA

PRESENTACIÓN

Este libro no debe retraeer a quienes esperen encontrar en él un árido tratado sobre temas extremadamente profundos referentes a la pequeña Isla donostiarra de Santa Clara. Bien al contrario, el lector se encontrará con una obra amable, que rezuma el cariño que el autor siente por ella. Y ello tiene un mérito especial cuando se aprecia que tras la obra hay un concienzudo trabajo de recopilación y análisis de datos, hechos, pequeñas y grandes historias respecto a la Isla donostiarra.

Su aproximación se produce desde variados campos, predominando quizá el histórico, el sociolingüístico y el geográfico. La erudición del autor en general, y en particular su dominio de varias lenguas, comenzando por su amado euskera, le permiten acceder a fuentes variadas con una mejor comprensión de conceptos, palabras, frases, modismos, topónimos, etc. En este sentido, Txillardegi se nos muestra en momentos como reinterpretable de temas que se daban por cerrados, o por poco comprensibles.

Ese dominio lingüístico le permite escribir el libro original y totalmente en euskera, en un euskera rico y a la vez accesible, con un ejercicio de estilo y forma más bien dirigidos a la fácil comprensión por parte del lector. Esta facilidad se repite al apoyar frecuentemente sus ideas en planos, fotografías, cuadros, grabados, documentos, etc. que se intercalan en el texto euskaldun convenientemente explicados.

El propio autor ha añadido un amplio resumen del libro en castellano, capítulo a capítulo, a fin de hacer llegar a todos el mensaje a favor de su querida Isla. El autor, a su vez, se ha basado en fuentes tradicionales pero ha hecho un buen uso de sus conexiones personales, consiguiendo así un amplio elenco de colaboradores, especialistas o aficionados en muy distintas y variadas áreas del conocimiento.

En el libro se repasan las primeras noticias atribuibles a la existencia de la Isla –más antiguas de lo que se cree– y el origen del nombre de Santa Clara, sus instalaciones y restos habidos y encontrados a lo largo de los siglos, la participación de la Isla en la historia religiosa, civil y militar, la actividad de sus faros y la vida de los fareros y otros habitantes, los distintos intentos registrados por convertir la Isla en península, y, en fin, la relación de la Isla con los restantes elementos de la bahía y la ciudad.

Si el lector cree conocer bien la Isla de Santa Clara, encontrará aquí una abundante y muy variada información que posiblemente desconocía y le agradará recibirla. Para quien quiera iniciarse en el conocimiento de este pequeño rincón, de este mundo un tanto independiente dentro de la ciudad, tiene en esta obra un medio muy agradable para lograrlo.

INSTITUTO DR. CAMINO
KUTXA – CAJA GIPUZKOA SAN SEBASTIAN

ESKERRIK ASKO!

Liburu honen prestakuntzan lagundu nauten hauei, bihotzez mila esker emanet; berek ere, nork bere erara, honen gauzaketa posible egin dutelako.

Eta inor ahantzi baldin badut, agian ez!, baska, eta neure eskerrik benetakoena ere berauentzat.

*Antso, Martín
 Artola, Koldo
 Bastarrika, Iñaki
 Basurko, Karlos
 Fernández Mata, Luis
 Fornells Angelats, Montserrat
 Garmendia, Juan Antonio
 Garzia, Guillermo
 Garzia Etxeberria, Juan Mari
 Goikoetxea, Izaskun
 Gómez Lorente, Antton
 Isturitz, Anjel
 Iza, Ana
 Jimeno Jurio, Jose María (†)
 Legorburu, Elena
 Leniz, Jokin
 Roda de Lamsfus, Paloma
 Sáez Garzia, Juan Antonio
 Salaberri Zaratiegi, Patxi
 Soto Azkarate, Félix
 Tellabide, Josu
 Urretxa Rotaetxe, Esperanza
 Urteaga, Mertxe
 Uzkudun, Antton
 Villanueva, Edelmiro
 Zabalo Agirre, Amaia
 Zaragueta, Bizente
 Zavala, A. Antonio*

Berriro ere, mila esker denoi

TXILLARDEGI
 Donostia, 2003ko Urrian

SANTA KLARA UHARTE EZEZAGUNA KAPITULUEN ZERRENDA

0. Antiguatik Santa Klara Uharterantz	17
1. Donostia aurrea: bi uharte	19
2. Uhartea eta Itzurun	27
3. Asis-ko San Frantzisko Uhartean	35
4. Ermita zaharraren bila	41
5. Iturri zaharra	65
6. Ihiztarien txabola	71
7. 1864: Farolaren eraikuntza	81
8. Arribizketa	91
9. Dorrezainen patu hitsa	101
10. “Ugartearren Adiskideak”	111

SARRERA GISA

ANTIGUATIK SANTA KLARA UHARTERANTZ

Presta nezakeen nik liburu honen Aitzin Solas hau, hotzean. Nola ez!

Izkribu gaia urrutitik hartuz. Geografilari batek bere deskribakizuna hartuko lukeen moduan.

Eta, ausaz, ximiko pertsonaletatik ihesi, hobe lizango zen zenbait aldetatik.

Ez dut egingo, ordea. Santa Klara Uhartea maite duten donostiarrek (eta kanpoko askok ere berdin, nik uste) ikuspuntu bihoz-korrago hau eskertuko didatelakoan.

Uharte-ko txokoetan dastatutako zirrara berriro odolean irakiten ari nahiago izango dutela; hamaika orrialde eta taulatan, eta makina bat dato jakintsutan, galdu baino.

Urdazubiar ospetsu hark esango zukeen bezala, eta erratua bal-din ba-naiz, “enea da falta; eta ez... Uhartearena!”.

Hitz batez, *neure Santa Klara* hartuko dut abiapuntu. Eta Uharteko lurra neure oinez zapaldu nuen lehenengo txangoaren oroitzapena hautatuko dut abiagune eta hurbilbide.

Orain dela dotzena bat urte Antigua 1900 liburua prestatzerakoan egin nuenaren bidetik, Uhartea ikusten, usaitzen, ikutzen saiatuko naiz; bertako piku usaina orrialde hauetan aditzen ezinezkoa izango bazaizue ere.



1942 inguruau, eta nik 12 urte nituelarik, Tío Miguel (Alvarez Iraola) osabak eraman ninduen, estrainakoz, Santa Klara Uhartera.

Laurita piraguan joan ginen (Laura Alvarez Torre, lehengusina, gazterik hila). Eta kaskoraino igo ginen estrata estu batetik.

Ezkerretan Arrobi utzita (turisten ahotan *Monte Igueldo*), itsaso zabala agertu zitzaigun Ipar aldetik. Txilarraz oroitzen naiz, eta hai-zeak makurtutako zuhaixkez, eta antxeten eta kaioen karrakez. Platapetik olatu orroa zetorkigun.

Farolaren etxera iritsi ginen. Eta han bokata bana jan genuen, eta bertan saltzen zen sagardoa gogoz edan.

Donostiar askok (nire amak berak barne) sekula gainditu ez duten “barradera” gainditua nuen jadanik. Nerabe nintzen mutil hura, gizonduta atxeman nuen neure artean.

Eta gerora, *urteak joan, urteak jin*, Uharte-zale bihurtu nintzen, porrokatua.

Uhartea maite dutenek: bai *Ugartearren Adiskideak* Elkartekoek, eta bai gainerakoek, ongi dakite egiaz mintzo naizena.

Uharterzaleok maitemindu egiten gara zinez paraje hartaz. Han nahi genuke egunero egon. Maitemindutako nerabeak bere neskatila maitatuarekin egon nahi duen bezala.

Hori dela bide, eta ahal izan dudan bitartean, txalupaz, piraguaz, pirautxoz, ehunka aldiz izana naiz han. Hantxe eman dut ordu pila.

Eta, benetan, ez dut uste hango *dolce far niente* giro hartan baino ordu beteagorik eta atseginagorik, beste inon dastatu dudanik.

Donostiako paradisuari Santa Klara Uhartea deritzo.

Baina lan-leku ederra ere bada.

Literatura orrialde mordoska idatzia dut nik hango mahai zaharretan. Are *Soziolinguistica Matematikoaren* kapitulu batzuk ere.

Nire luma-uztaren parte bat Uharteari datxekio. Eta oraintxe da une egokia aitortzeko.

Gainerakoa, eta honekin batera doan ikerketa apurra (argazki, marrazki, dokumentu, plano, izkribuak oro), bihotz-bihotzez eskaintzen dizkiet Uhartea maite duten guztiei.

Beajondeizuela!

I

DONOSTIAN BI UHARTE

Donostiako gorabeheretan ikertzaile gailen agertzen den Antton Agirre Sorondok emana duen xehetasun geologiko hau gogoraztetik hasiko naiz:

“Existe una subespecie de lagartija ibérica que solo se puede encontrar en esta isla (= Santa Clara), y en el Monte Urgull” (ikus Ermitas de Guipúzcoa, Sorondo/Lizarralde, Barandiaran Fundazioa argit., 2000; 154. orr.)

Eta, urte luzeetako lanbidearen eraginez, nik uste, lerro horiek nik irakurri orduko, Geolinguistikaren munduan ezagunak diren fenomeno batzuk bururatzten zaizkit.

Gauza ezaguna baita (eta euskalkien ikerketaren alorrean ere eskuarki kontutan hartua), hizkera nagusiaren eremuko muturretan eta ertzetan; eta hiztunen isolamendua eta endogamia lagun, Morfologian edo Hiztegian “arrasto bitxiak” topatzen direnean, alda-kien kokapen asimetriko hauek irakurketa diakroniko seguruak idarokitzten dituztela.

Garbikiago esanda, eta adibide bat emanez, frantsesaren geografian *abeille* edo *aveille* hitz arruntaren ordez (= eusk. *erle*), hiztun elebidun zahar batzuen mintzai-ran, eta ez besterenetan, suntsitzeko bezperan nabarmenki; zoko honetan aps eta beste hartan é bilduak izan direla ikastean, “bitxikeria” horiek oso adierazgarri zaizkigu.

Fonologia historikoak zehazki azaldu dituen aldakuntzen ondorioz, estratu zaharreko Lat.”apis” berba zaharrari, “abeille” berria nagusitu zaio.

Eta unitate truke horretxek azaltzen du gaur mapa sinkronikoan topatzen duguna.



Hots, guztiz bide beretik ikertuz eta ideiak harilkatuz, *gaur egun* iberiar penintsulan, eta bestetan, *nagusiturik eta orokorturik* aurki daitekeen surangila-mota arrunta (*Lacerta muralis*, gaizki ez banago) berria dela pentsatzeko arrazoin sendoak ditugu; eta Santa Klaran eta Urgullen bakarrik aurki daitekeen “surangila bitxia”, desagertzekotan ari, gaur “ertzeko” azpi-mota (“sub-especie” dio Agirre Sorondok), behinola surangilarik hedatuena izan zela.

Antzinakoaren aztarna bizia hauxe dela ondoriozta dezakegu.

Eta mota “berria”, aldiz, gaur egun indarrean, eta edonoraino barreiaturik agertzen zaiguna dela.

Surangila mota bera Urgullen eta Santa Klaran batera topatzea, eta ez beste inon, gertakari ezinago adierazgarria da.

Kokapen asimetriko horretan **berrikuntza** bera gauzatzea, ez baita inon gertatzen.

Hitz batez, Santa Klarako surangilaren kasoan, *arkaismo zoologiko* baten aurrean gaudela garbi dago.



Azpi-mota zoologiko horrek eskaini digun xehetasun xumeak, beraz, ondorio garrantzitsuak ditu Donostiako kondairari buruz.

Eta Santa Klara eta Urgulli buruz oso bereziki. Nork soma?

Zeren-eta, gaur egun, Santa Klara uharte baitago.

Baina Urgull ez.

Hots, bion arteko bestetasuna aspaldidanikoa balitz, mota **bikuntasuna** aurkituko genukeen bertako alimaleetan. Eta ez gaur dagoen bakuntasuna.

Surangilen batasun berezia arrunt argigarria da.

Badakigu, jakin, bestetarik, Urgull uhartea berriki bihurtu dela tonbolo. Mediterraneoko itsasertzeko Peñíscola bezalaxe.

Laburkiago, Donostia zaharrak (edo Itzurun zaharrak zehazkiago, ondoko kapituluan erakutsiko dugunez) bi uharte zituen, eta ez bakar bat.

Eta frogak badaude.

Zientifikoak dira batzutan, eta ulerterrazak.

Ilun xamarrak bestetan, eta Zientziatik erabat urrungoak.

Geologikoki mintzatzekotan (lehenengo multzoari gagozkiolarik, hortaz) zalantzak bat ere gabe, gaur hiriak duen itxura hau hartu baino lehenago; eta zehazkiago, Urgull penintsula “tonbolo” bihurtu baino lehenago, **uhartea** izan zen.

“Lehenengo uhartea”, nolabait esateko, Urgull da. Edo-ta uharte nagusia.

“Bigarren uhartea”, berriaz, edo alboko uhartetxoa, bere “uhartetasunari” eutsi dion bakarra, Santa Klara delarik.

Hona hemen, esate baterako, *Natur Zientziak* Hiztegiak (Jakin, 1976), Arantzadi Elkarteko talde batek prestaturik, Jesus Altuna jakintsa buru zuelarik, 332. orrialdean azaldu zuena (ikus, bidenabar, 159. irudia, Donostiako planotxoa):

“Tonboloa: Irla edo uharte bat da, kontinenteari bien artean jalkitako jalkinez lotua. Donostian daukagu adibide eder bat, Urgull mendia”.

Arribizketako bokale edo harraldea hesteko projektu guztien gainetik (bai 1916koa, eta bai Donostiako Consuladoak XIX. mende hasieran eraikitzen hasitakoaren gainetik ere), **uharte egon da** Santa Klara, eta **uharte dago**.

Beharrik!



Baina Donostia ez da, inondik ere, tonbolo famatu bakarra.

Frantziako famatuena, Iparraldean, Normandian dago; eta *Mont Saint Michel* deritzo.

Erdi-Aroaz geroztik beneditar Abatetxe bihurturik, “c'est un îlot rocheux du fond de la baie du Mont Saint Michel, à l'embouchure du Couesnon, et relié à la côte par une digue depuis 1875” (Dict. Larousse).

Eta gauza bera azaldu zuen Juan Bautista Olaetxeak Donostiakoaz: “Como ahora lo es Santa Clara, en la Antigüedad el monte Urgull constituyó una isla; que se convirtió en istmo al aglomerar el mar las arenas que unieron al continente el alto y áspero peñón” (ikus *¿Quién destruyó San Sebastián?* 1973; 11. orr.)

Honen argigarri, hementxe duzue, ondoko orrialdeetan, Hércules Torrelli-ren plano miresgarri eta famatua (1723).

Besteak beste (eta badago, zinez, arreta zertan jarririk!) Urgull-en tonbolotasuna ezin garbikizgo ageri da XVIII. mendean. Garai hartan,

aisa ikus daitekeenez, ekaitzaldietan eta itsaso bizietan Urgull *benetako uhartea* zen oraindik.

Hona hemen, adibidez, beste lekukotza “zehatzago” hau, Aresok 1984an *Geografía Histórica de San Sebastián* liburuan emana: “*En 1150 la comunicación de San Sebastián con tierra era ya posible, aunque en ocasiones el istmo era invadido por el mar*” (Gómez Piñeiro / Saenz García: InGeBa, 25. orr.).



Eta honeteraz gero, zilegi bekigu bi uharteon mixterioan barrena abiatzerakoan, beste ikertzaile batzuen iritzia ematea.

Idarokitzapenik harrigarrienak, Luis Peña Basurto Arantzadi-tarrak plazaratu zituen 1963an, Donostiako 1813-1863-1963 ospakizunen barruan, berak eskainitako txostenen artean (ikus *San Sebastián en la Prehistoria y la Protohistoria*, 1963).

Nik izkribu harrigarri hura hartuko dut gidari. Eta ezer gutxi erantsiko. Irakurleak badakikeenez, Antzinateko gertakarien alor horretan, nire jakinduria hutsaren hurrena izanik, isiltzea dagokidalako.

Ora Maritima izeneko bidai kronika guztiz iluna du aiputan; eta bere horretan ez gaitu sobera argitzen.

Baina K. a. 530 inguruan idatzia izan zenez, lekukotasun-balio aparta du.

Izkribu horretan deskribatzen bide da lehenengo aldiz Donostia ingurua.

Bizkaiko Kolkoko kostaldea Britainiatik Galiza aldera goazelarik, eta itxura guztien arabera gure eskualdeaz ari delarik, eta latinez, honelako zerbaite esan baitzuen kronikariak: “*Venus-en lur-muturra inguratu ondoren, bidaiairiak bi uharte txiki topatu zituen, elkarren ondo-ondoan, beren txirotasun eta idortasunaren ondorioz, huts hutsak eta jendegabeak*”.

Lerro labur horiek ez dira aski, noski, besterik gabe hor aipatzen dituen “bi uhartetxo idor horiek” aurkitzean, Urgull eta Santa Klaraz ari zela segurtatzeko.

Baina distantziak eta gaineraikoak kontutan hartuz, eta Numanziako aurkitzaile bera (Schulten famatua, alegia) inguru hauean 36ko gerla aurrean oso tematuta ibili zela jakitean (Txingudin bereziki, egia esan), “zerbaite” badagoela dirudi.

Nahiz Mitxelena, egia da, Schulteni buruz oso uzkur agertu.

"Itsas Venus" hori, Igera-Txingudi kolkoan egon bide zen, Oiasso zaharrean.

Ez Donostian, berriro diot.


Eta, Galizari buruz ari, segidan, "bi uhartetxo soil idor horiek" gogotan hartu zituelarik, "gure" biok izan daitezkeela dirudi. "Dirudi" idatzi dut. Eta Urgull eta Santa Klaraz ari zela.

"Ora Maritima"ren kronikariak Donostia eraiki baino lehenagoko *uharte bikoitza* ikusi zuen itsaso zabaletik. Eta izkribuz adierazi zigun bere harridura.

Peña Basurtok ez zuen hipotesi hau erabat baztertu.

Eta guk, beraz, zergatik errotik gaitzetsiko? Zertan funtsaturik?

Nik neuk, bederen, ez dut egingo.




Hércules Torrelli kapitamaren planotik hartua (Uharteera erakusteko)

Berwick-en setiaketaren ondoren marraztutako plano hau, batimenduen perspektibak famatu du.

Santa Klarako Ermita ere horretara ageri da; bere kanpai-hormak eta guzti

Baita planoa bere osoan ere (III. Kap.)



Eta, abiatu aitzin, horra hor

Uhartea 1950 urtean

(Fototeca, 150-6; 6488.1)

Ezker aldean, *Loretope*-ko harkaitz muturra ikus daiteke. Baita hondartzako arroka batzuk ere.

Uharteko behekaldea, nasaldea, 1956ko lanak eta aldaketak burututakoan hartuko zuen itxura, urrun dago oraindik. Argazki honetan, hitz batez, Uharte zaharra ikusten dugu nolabait.

Loretope-ko eskailera horrek, eta itxitia egoten zen burdinazko atea, *Miramar Jauregirako* sarrera ematen zuten.

Nik neuk, argazkian ageri den eitean ezagutu nuen Uhartea. Eta fotoak atzera jaurtitzen nau brauki.

Gauza bera esango nuke **Loretopeaz** eta goroldioak estalitako arroka labain irristakorrez. Putzuetan jostagarri zitzaitzakun izkirak, kabuxiak, eta karramarroak desagertu egin dira; edo-ta erabat urritu.

Mende erdi bat ez baita aldaketarik gabe joan.



Torreli-ren planoa hau entzutetsua da.

Batzuek batimendu nagusien **perspektiba** azpimarratu dute: harresiak, monastegiak, Uharteko Santa Klararen Ermita, kokatzeaz gain, bisitariak **ikusten** zituen itxuran marratzu zituen. Horrez gain beste xehetasun batzuk erantsi baitzituen: itsas-mareen mugak, esate baterako; edo kaiaren egitura.

Baina Donostiako *bigarren uharteari* buruz (Urgull-ez, alegia), garbi utzi zuen gaur egun Donostiako Erdikaldea (“Hiribarnea” egokia-go hizkerari dagokionez) osatzen duten lekua, istmoa edo hondar-ibia, askotan urpean desagertzen zela.

Alegia, Torreli-k bere planoan aipatzen dituen “arenales” delakoak, hondoraturik izkutatzen zirela urpean. Eskualdea padura *urtsua* zen.

Donostia tonboloa da funtsean. Eta 1723ko plano horretan puntu hau azpimarratu nahi nuke nik: Donostia *lintzuruna* zela. Gazt. *zoma de marisma*; Frants: *zône marécageuse*.

Ikus ere, fantasia eta guzti, Taylor-en grabatua (1845). Begira bezate sinesgogorrenek. Toponimiak ere izakera *urtsu* hori baisten du.

Serapio Muxika-ren lanen ondoren ez du honek zalantzarako zirkiturik uzten. Beronen ustez “*itzurun, lintzurun* eta *padura* hitzek gauza bera adierazten dute: *leku urtsua*.

Honetaz, beraz, batere “euskalari” ez zen Donostiako alkate izandako **Gabriel Laffitte**, zehatzago idatzi zuen jakintsu askok baino: “*Hitzurun* quiere decir en vasco *marisma*; no tres agujeros, como erróneamente pretenden algunos; de donde han hecho derivar *Iruchulo*” (ikus *Aspaldiko gauzak liburua*, 126. orr.; Baroja, 1936).

Antiguako “Au dek” xaletean bizi zen **G. Laffitte**; gradu handikoa (bere arbasoak bezala) Ibaeta auzoan.

Hots, **Laffite** eta **Azkona** alkate-ohien “pasadizuak” ongi ezagutzen zituzten donostiarrek. Biok bertako “txireneak” ziren

Hemen ez daukagu puntu honetan luzatzerik. Oraingo gure helburua **Uharte** delako. Bainax xehetasun asko eta askotan, eta baita zirto

askotan ere, euskara zen beroien mintzabide arrunta. Urte haietan, Donostiako alkate-jendean ere umorea eta euskara ongi ezkontzen ziren.

“Natul” irteten ziriak eta txantxak, eta euskaraz irteten. Elebitasuna oso hedatua zegoen goiko klaseetan; gaur Kataluña geratzen den bezalatsu. Katalan elebakarrak klase apaletan daude. Katalan burgesia elebiduna da. ProletARGOA elebakarra.

Hemengo burgesia... nagoen isilik. Gure arbasoek erdaraz hitz egin nahi zuten, eta ezin zuten; euskaldun elebakarrak zirelako.

Euskal Herriko belaun berriak, aldiz, elebiduna proportzio altu xamarrean, hautua egiteko aukera du.

Lehenengo urratsa, ezinbestezkoa, emana dago.

Hautu libreak beti sortzen du halako txorabioa. Euskarari beharrrezkotasuna eta maitasuna ez dira aldez aurretik aurre-erabakiak. Gaurko gazteen jokabidearen baitan daude.

Gaurko erronka horretan dago.



II

UHARTEA ETA ITZURUN

Antzinatean Santa Klara Donostiako uharte **bakarra** ez zela erakutsi ondoren, begira dezagun orain inguru hartan zer edo zertsu zegoen.

Erdi Aroko mende urrunetan (VII-VIII-IX mendeak baino lehenagoekotan) ez zegoen gurean, golko busti eta padura lohitsuen artean, “Donostia” izeneko hiririk. Ez auzune apalik ere.

Agian Urgull magalean, txabola zarpailen bat. Eta kito.

Alegia, biziera-gune laikoko finkorik ez zegoen, ezta komentu edo eliza pleguko multzorik ere.

Donostia **hiria**, hitz batez, hiri hasikin axal eta apal gisa ere, ez zen lehenengo milurtekoan mundura sortua.

Eskualde geografikoa, bai. Noski. Erreka-uholdeen eta itsas-ekaitzen arabera, bi uhartez edo bakar batez hornitua.

Saia gaitezen, beraz, XI. mendean, eman dezagun, kokaleku har- tan ikus zitekeena somarazten.



Santa Klara Uhartea zegoen. Esana dugu. Kolkoaren zaindari.

Beronen Ekialdean, itsasaldien arabera tarteka uharte tarteka penintsula, **Urgull** uharte-ohia zegoen.

Hegoaldean, berriz, Iparraldeko haizeetatik mendi-mazelak berak babesturik, gaztelu zaharraren hondakinen behikaldean, arrantzale etxetxo bakan apal batzuk.

Ekialdean, berriz, **Ulia** mendi luzean sakabanaturik, beste base- rri eta etxola batzuk.

Eta gure Kolko-ko Mendebaldean, beste mendi luze bat ageri, Txubillotik Mendizorrotzainokoa. Antzina Iheldo Bizkaia zeritzona (*bizkai*, erdarazko ‘loma’ delarik; Irigoien, 185), eta guk gaur Igeldo deitua.

Hegoalderantza Kolkoa inguratuz, muno txapal leun mordoska bat zegoen, zenbait baserriz urteetan barrena apaindurik: Ametzagaña, Konkorrene, Arbaitzene, Alttubene, Puiu, Aiete, Latxaga, hamaika malda eta ttonttorretan.

Kolkoaren ertzean, berriz, batimendu apal bat gailen bere bakardadean. Done Sebastianen erromes aterpea. Gero Erdi Aroan barrena handitua eta benetako Monastegi bihurtua. “*Zaharra*” izenaz ezagutua (erdaraz “El Antiguo”), denetan aspaldikoena zelako.

Santiago-rako erromesen zerbitzutan, babesleku gisa XI. mendean eraikia (1004 eta 1076 artean, historilariek diotenez; baina lehenagotik heldua segurki), hondartzaren gain-gainean zegoen, itsasertzeko harkaitzen gainean, Loretoperen eskualdean. Gaur “Miramar Jauregia” dagoen lur-muturrean, beraz.

Eta orduko Ernani-ko lurrardearen mugan.

Atzerago (edo barrurago, nahiago bada) Gipuzkoako kutsua berehala nagusiturik, muno berde mordo bat ikus zitekeen, eta lizarrik, eta haritzak, eta hultzak; eta iratzeak, eta belazeak, eta sagardiak, eta urak mogitura errotak errekaldeetan.

Eta, Gipuzkoako bazter hauetan guztiz harrigarri (eta ondoko mendeetan, noiztanik ez dakigularik, Monastegiko beharretan lagungarri egona), haize-errota bat.

Monastegi gainean zegoen, Hegoaldean, gaurko Txabardegia-ren ondoan. Dorre borobia zeukan Aizerrota-k.

1862ko zerrendan Lugariz-ko 15. errepera daraman etxe bikoitza, oraindik Monastegiaren arrasto bitxia da.

Antiguako Monastegia, zaharrena zen. Agustindar seroren San Bartolomekoa bera ere, geroago eraiki zen: 1244an, XIII. mendean.

Eta liburueta gure “Izurun” horretaz, zer?



Donostiako Izurun delakoa *behin bakarrik* aipatzen da gure kondairan: 1014 urtean.

Geroko urteetan, dokumentu berean funtsaturik, izendapen bera hamaika aldiz errepikatu bada ere. Behin bakarrik!

Hitzaren balio fonetikoaz (ahoskeraz, alegia), eta antzinako konsontantearen sudurkaritza salbu, adostasuna berehala lor badaiteke ere (besteak beste Zumaiako Itzúrun hortxe dagoelako, seguru aski aspaldidianiko ahoskera berean), Donostiako Itzurunen esanahiaz besterik da. Eta eztabaidea luze eta gogorrak egon dira XX. mende haseran.

Zumaiako Itzurun-en kokapenaz (antzinatean, alegia) balegoke, agian, zer eztabaidaturik.

Gaur egun itsasaldeko hondartzari deritzo Itzurun; eta barrukaldekoari, paduren alderdian dagoen Zuloaga jauregiarenari, berriz, *Santiyo Txikitoren Hondartza* esaten zaio. Bainanik galdetu egiten diot neure buruari beti horrela izan ote den... Eta inguru haietan Santa Klararen Ermita topatzen dudanean... Txiripa gehiegitzo zaio edozein donostiarri... Bainan, bego.

Eta itzul gaitezen Donostiara.



1014ko dokumentu *zalantzazko eta bakar* horretan, batera “villa” eta “pardina” gisa aipatzen da Donostiako Itzurun.

Eta aurrerago azalduko dugunaren ildotik, “villa” hitza bisemikoa denez (“hiri” adieraz baitezake, gaurko gaztelaniaz bezala; baina baita “baserri” ere, nekazalgune gisa), arazoa sakon aztertu da.

Gaur egun, eta alorreko adituek batera diotenez, hau esan bide daiteke eta esan beharra dago: *Donostia hiria ez dela inoiz Itzurun izan.*

Segurutzat eman behar da, alderantziz, Antiguako San Sebastian-en Monastegi zaharrari zegokion baserri zabala (“villa rustica”) zela Itzurun.

Horren frogakari bikain, ikus beza irakurleak bestetan ere argitaratua izan den *Batty*-ren marrazki famatua (begira kolorezko bilduma)

XIX. mende haseran marraztua (Monastegia porroskatu zuen kartistada amaitu baino lehenago, hitz batez), *Juan Jose Arbelaitz*-en bilduman ikus daiteke (*Grabados y Planos de San Sebastián*, 1993).

Baina baita “*Antigua 1900*” nire liburuan ere, 317. orr.

Gaur egun, irudi zehatzetan, ikusi egin ditzakegu Monastegi zaharreko ingurua eta zegokion barruki mordoa; eta batimendu multzoaren kutsua ere bai.

Eta, lehen ez bagenekeien ere, orain badakigu inguru horietxei zeritzela Itzurun!



Baina guk Uhartea dugu ikergai; eta hara egin behar dugu. Jauzi labur bat egiteko bada ere. Oraingoz.

Izan bedi ohar hau gaian barrena abiatu aurreko deia.

Batty-ren bi marrazkietan Santa Klara Uhartea agertzen da.

Eskuin aldeko ertzean ozta-ozta ikus dezakegularik, *Ermita desegin ondoko arrastoa errepara daiteke*. 23 urte joanak ziren erreketatik **Batty-k** Loretape gaina grabatu arte.

Batty-k berak utzi zigun bigarren marrazkia (ikus beza irakurleak, adibidez, *Miguel Artola ed. ren liburua: Historia de Donostia-San Sebastián, 269* - Donostiako Udala, 2000). Oso urrutitik Uhartea ikus daiteke, Ermitaren arrastorik gabe (“El barrio de San Martín”).

Beste aukera bat ere badu irakurleak, erosoena agian. Nire *Antigua 1900* liburura jotzea (Gipuzkoa-Donostia Kutxa, 1992). Koloretan argitara nituen biak irakurlearen zerbitzutan: 317 (Antigua), eta 319 (San Martin auzoa).

Orain badakigu inguru horietxei (317) oso bereziki, zeritzela Itzurun.

Garbikiago agian: Done Sebastiane-ren Monastegiaren inguruko lurraldeen izena zen Itzurun. Loretoean hasi, hondartz-a-paduretak gora joan, eta Ernaniko “goiko galtzada” zaharrerainoko bazterrak... horixe zen Itzurun.



Euskaltzaindiak argitaratutako *Onomasticon Vasconiae* sail bikainari esker, (ikus Anjeles Libano Zumalakarregi-ren gidari-tzaepan burututako *Toponimia Medieval en el País Vasco*, 19. libk., 1999; 84-85 orr.,) badakigu Izurun hori non, noiz eta zenbatetan agertua den.

Aipuen zerrenda ez da luzea. Hiru aldiz agertzen da *Izurun* hitza; eta hirurak 1014ko dohantza edo donazioan. Nafarroako Antso Handiak Leire-ren fagoretan sinatu zuen dokumentuan, beraz.

Serapio Mujika artxibozain jakintsuak bi artikulu funtsezko argitaratua zituen Itzurun-i buruz RIEV aldizkarian 1932 eta 1935an.

Eta, laburki bederen, toponimoei buruzko azalpenetan salbu, orpoz orpo jarraituko gatzazkio ondoko lerrootan.

Donostia hiri zaharra Itzurun izatea erabat ezina zaio ormaiztegiar jakintsuari:

“(ciudad de la que jamás) se ha encontrado vestigio ni ruina alguna en ningún tiempo, y sin que apareciera su nombre en lado alguno, sino exclusivamente en esta escritura y una sola vez” (RIEV, 1935, 401).

Itzurun hiriaren arrastorik ez dago, hitz batez.

“En 1014 se confirma –hau bai– la donación de la iglesia de San Sebastián, que está en la orilla del mar, en los límites de Ernani, con su villa, con sus términos y pertenecidos, tierras, montes, etc.; es decir la iglesia, que sin duda era de los monjes, con su explotación agrícola, con su finca rústica, con su baserri, y nada más” (409).

Hori bakarrik ez. “Izurun villa” eta “Izurun pardina”, gauza bera dira: “en el mismo documento en que se habla de la villa de Izurun aparece la pardina de Izurun, que son sin duda la misma cosa” (406)

Gakoa hemen dago S. Mujikaren ustez: aquí tenemos explicado lo que llamaban *pardina* en este país y en aquella época, y así sería la *pardina* de Izurun, con un edificio adecuado que sirviera para albergar el ganado y guardar los aperos de labranza, y demás pertrechos necesarios para la explotación agrícola de la pertenencia de los servidores del Monasterio... casa de labranza que se compone de tierras labradías, prados, manzanales y castañales, y montazgos más o menos extensos” (407).

Eta, agian are zehazkiago beste pasarte honestan: “A nuestro juicio la palabra *villa* en este caso, no significa población, sino quinta o casa de campo, en donde se tenía la labranza, granja o explotación agrícola, es decir, un campo dedicado a la agricultura, de la pertenencia del Monasterio de San Sebastián el Antiguo; y creemos que al donar el monarca navarro a Leire el Monasterio de San Sebastián “con su villa de Izurun” debe entenderse sencillamente el Monasterio con sus terrenos agrícolas del terminado de Izurun” (S. Mujika, 407).

Hori irakurrita, besterik erantsi beharrik ez dago.

Itzurun Antiguan zegoen, Loretopea eta Aieteren artean. Eta ez Urgullen magalean. Mintza bekigu Lugarizko Aizerrota!



Baina zer dela-ta eskualde hura orain dela mila urte gure arba-soek Itzurun bataiatzea?

Izen hori toponimoa dela oinarritzat harturik (eta besterik pen-tsatzeko arrazoinik ez dugu ikusten), eskualdearen geografia hartu beharko dugu abiapuntu.



Eta argi emale gerta dakiguke orain, honi buruz, Donostiako batin menduen krokisa ere eskaintzen digun Hércules Torrelli-ren plano bitxi-mamitsua (1723); irakurlearen zerbitzutan orrialde haue-tan berriro argitaratua. (I. Kap.)

Nabarmen agertzen da hor, bereziki, San Bartolome eta Urgullen arteko eskualdean, planoaren egileak **hondartzak eta padurak** marraztu zituela (“arenales” hitza ere irakur daiteke; edo-ta “baxo de arena”).

Tokia zingiratsu agertzen da.

Hots, nik orain **Patxi Salaberri** nafartar onomastikalari jakin-tsuairen iradokizuna ontzat emanez, **Intzur-un* somatzen dut “Itzurun”en jatorrian (-un, lekua delarik).

K. Mitxelena-ren aldaki pare horren alde dago (“*Intzura, Lintzura*, “lugar pantanoso” delarik, Apellidos Vascos, “301”, 99. orr.).

aitzur / (h)aintzur bikotea ezaguna da, bide beretik (Mitxelena/Sarasola, Dicc 486). Eta arrunta ere bai *ahanztu / ahantzzi / ahâtze / aztu* multzoa. Eta *Itzurun*-en parean **Intzurun* postulatzea ez da gehiegizkoa.

Era berean, aspaldiko *Ayçurra*-ri (1284) gaurko *Aitzurra* gailendu zaio. Aspaldiko izkribuetan frikaria eta afrikatua ez baitziren beti zehazki berezten.

Baina besterik ere badago.

Azkue-ren Hiztegian hau aurkitzen dugu: “*lintzura*”, G, aguazal, pantano (Dicc. 548)

Baita ahaidea den “*aintzira*” ere bai: lago (G,L); eta pantano (AN) (ib.18)..

Bide beretik dator Larramendi ere: “*linzurá*” (Lat. locus caenosus): lugar pantanoso, ed.1853, II, 227.

Eta aipamen berezia merezi du honetaraz *gero* Anjel M. Elortegi euskalariak (ikus *Pasaiako Toponimia*; Onomasticon V., 8, 1992),

Pasaiako padurak gogoan hartzen dituelarik idatzi duena:" *Alde hau guztia lintzura dugu, euria egindakoan errez lohitu egiten dena* ", 99.

Itzurun eta lintzura hitz beraren bi aldaki badira, oztropoa garbi gailentzen da.

Eta, hau borobiltzeko, eta berriro ere Serapio Mujikaren iritzia Gipuzkoako padura hauetaz ari zelarik abiapuntu:

"También conviene tener presente que, en los tiempos en que se inició la idea de la canalización del Bidasoa, y aun mucho más tarde, la región que inundaban sus aguas era mucho más extensa de la que ocupa en la actualidad.

Todos los terrenos designados con el nombre de juncales o lezonés, desde el puente de Endarlaza hasta Mendelu, no existían en su casi totalidad, y el resto, o sea la parte más próxima a las montañas, eran terrenos pantanosos, inundados por las mareas, cubiertos de juncos y alisos, sin que nadie los cultivase. No había a Endarlaza ni a Behobia más paso que el de la montaña, y el agua se enesñoreaba de todo el valle "(49. orr., G.P.V.N., Gipuzkoa liburukian).

Arrazoin guztiak daude Txingudi eta Donostiako Kolkoa (kostaldeko beste asko bezala, Zumaiakoa barne) oso antzekoak zirela pentsatzeko.



Donostiako Toponimiak ere ez du zalantzarako atekarik uzten: Portuetxe, Loiola, Txalupagillene, Ibaeta, Astiñene, Konporta, Loizta (XII), Loiztarain, Zingereta, Loitegi, Loiztegi, Portuene, Iza, Zingira, Uralde, Txantxerreka, Igara, Antzieta, eta abar luze bat.

Denak bultzatzen du *Intzurun-en hipotesia onartzera.

Baina bego hori horretan. Ez dut Toponimiaren itsaso arriskugarri horretan barrena abiatu nahi...

Ez baitaene asmoa inondik ere nik baino hobeki azter dezaketen lankideei lekua kentzea. Ezta *iz-* (agua, mar) inoiz *ur-*en kidea izan ote den hemen eztabaidatzea.

Baina bi hitz bederen esan gabe ezin ihesi joan.

Batzutan, oso garbiki, toponimian agertzen den *iz-*- osagaiak haitzen balioa du.

Gogoan har, bai Mitxelenak (haseratik beretik, Azkueren beraren eta modaren kontra), baino 1051ko dokumentua gogoraziz, aisago

somatzen zuela *haitz / itz* osagaia kasu askotan, inolako “iz”=ur baino. Ikus (*Textos Arcaicos vascos*, 2.2.6).

Bide beretik, Irigoienek ere *Izpea*-ren kasoa azpimarratzen zuen: *Izpea, subtus penna in territorio Busturi* (Irigoien, De Re Ph. V, 61); edo *Izcarai* (Errioxa Garaian, Ojakastro inguruan, 1110; Rodríguez de Lama). Baina baita *Izpaster, Izlabarra* (1022), *Izkoitia* (Dima, 1796), *Ispea* (Tortura, Sierra de Badaya), Iruñerriko *Izpea*, 172, gaur *Peñape*. Eta abar luze bat. Landetan ere *Ispes* dago, Biscarrossen.

Edo, P. Salaberri-rena toponimo-harrobi gaitzean begiratuz, eta Nafarroan, Eslaba-ko *Izurba* (<*Aitzuloa*); edo-ta, Jimeno Jurio-rekin argitaratutako *Artaxoa, Euskal Toponimia* liburu miresgarrian, aurkitzen dugun *Içaldea* (1580), 132. orr.



Baina gogoan hartu behar da, hala ere, zenbait aldiz oinarrian *ihi* egon daitekeela (gogoan har *ihidoi*, esate baterako, eta *Idoia* Juncal baizik ez dela, irundar askok ez badaki ere...).

Eta *ihi* hori Lafonen irizpide muturrera joan gabe ere, sudurkaria izaten dela maiz (Mitxelenak berak uste zuenaren bidetik): *Intza*.

Laffitte amateurrenare **Hitzurun* bera ere (eta **Ihintzurun* posiblea) gaizki transkribatutako **Intzurun*-en alde mintzo dira.

Baina, guri dagokigunez, eta haria berrartuz, Antiguako Monastegia gogoan dugularik, itxura guztien arabera, honi zetxekion “baseria”ri zeritzen **Intzurun* toponimoa (1014ko dokumentu bakkarean “Izurun”, /i/ren sudurkaritzeari jaramonik ez eginez).

Eta hau lehen hurbilketa batez *Izurun* gutxi gora-behera transkribatua, horra gure katramilak eta ezinak!

Baina izendapenak *Donostia zaharreko paduretan du funtsa*.

Aski izan bedi. Nahiz, zinez, toponimi arazo hauek, kilikagarri bezain labainak izan.

Betoz onomastikalari zuhur eta zientifikoak.

Eta isil gaitezen gainerakook.



III

FRANTZISKO ASISKOA BISITARI

Itzurun-en mixterioa argitu nahiak, Antiguako Sebastian Sainduaren (*Sancti Sebastiani*) Monastegi Zaharrera eraman gaitu aurreko kapituluan.

Aldez aurretik nork somatuko?

Eta oraingo honetan, berriz ere leku horretatixek abiatuko gara geure Santa Klara Uharteruntz.

Zoritzarrez, eta esan berria dugunez, Loretopeko Monastegia, Antzinako Donostiarra gunerik zaharrena, 1836an gertatu zen era bat kiskali eta porroskaturik.

Robert Batty eta A. Fortescue-ren grabatu miresgarriei esker dakikegu gaur aski zehazki (lehenengoa hemen kolorezko bilduma-txoan irakurlearen zerbitzutan berrargitaratua) batimendu mordo hura nolakoa zen XIX. mende haseran.

Baina guk orain kondatu nahi duguna 1220an gertatu zenez gero, irudi horiek begietara dakarkigutena urrun gelditzen da denboran. Nahiz aldaketak garai haietan ez oraingo ziztuan gertatu.



Badirudi (berariaz azpimarratu dugu aditza) 1220ko neguan Asisko Frantzisko saindu famatua Antiguaren zela.

38 urte zituen orduan.

Eta Kristoren mezua (txirotasunean funtsatua, lagun-urkoarekiko maitasun sutsuan sustatua) arrapiztu egin nahi zuen, eta mundu zabalera hedatu.

Bidaiairi nekagaitz, bazterrik bazter ibilia, Frantziskok Italiatik abiatu, eta Afrikaraino iritsi nahi zuen.

Eta itsasoz joatea iruditu zitzaison zuhurrena, iberiar penintsularen Hegoaldea musulmanen eskuetan zegoelako.

Iparraldetik sartuz Nafarroara igaro zen; eta hortik Logroño, Burgos, Gasteiz, eta Donostiaraino.

Eta hemendik jauzia *itsasoz* egitera deliberatua.

Bere burua etengabe zaitzekotan, bizimodu gogorrean, eta leku *txiro, helezin eta aldreibesetara* joateko joera handia zuen Asistarrak.

Hain zuzen, bere Ordena-kideentzako lehendabiziko kokalekutzat, Asis-tik urrun ez dagoen *Rivotorto* idor eta latza hautatu zuen (Gure Krispin Beobide-k bere biografia herrikoian, *Asisko loria, 61, "Erreka Okerra"* deitua).

Hori bakarrik ez: “Kristoren jarraitzaile izan nahi baduk –erre-pikatu ohi zuen– etzak ezer eraman gainean biderako: ez makulurik, ez zakutorik, ez ogirik, ez sosik, eta aldagarririk ere ez”.

Beraz, eta harira itzuliz, **Frantzisko Asiskoak 1220ko txangoan bere oina Santa Klara** Uhartearen ipini izana, oso da sinesgarria; sainduaren joeren ildoan sartzen baitzen horrelako leku zakarretan hil-duratzea.

Areago, Antiguako Monastegitik begiraturik, batera latz, urri, zail, malkartsu eta deseroso agertzen baita. Nahiz hurbila ere izan.

Ordurako Uhartea “oso famatua” zela idatzi du autoreren batek. Baino horrelakorik nondik nora esan zezakeen ez da aisa ulertzan.

Egia esan, hau bai, **Uharteko kaxkoan** inoiz ermitatxoren bat ego-tea ez da sineskaitza; antzeko lekutako adibideak ez baitira falta.



Handik urte gutxitara, adibidez, bazuten frantziskotarrek besterik Euskal Herrian. Bizkaiko *Izaro* uhartean Monastegi bat izan zuten (1422-1596); gero *Madalena*-ren Ermita bihurtua.

Nolanahi dela ere, **Frantzisko Asistarra** eta beronen bide-laguna kaxkoraino iritsi ziren esku-zurubio bat baliatuz, segurki (Verbom-ek berak 1719ko gerlakoan idatzi zuenez)

Gaur ezagutzen ditugun nasak eta harri-mokorrezko aldapak berriak dira (XVIII. mendekoak, ikusiko dugunez, Berwick-en kanpainari lotuak).

XIII. mendean Santa Klara uhartea *leku basa* zen osoki.



Hots, *fama denez*, dokumenturik ez baitago honetaz, Asisko gure bisitaria hoztu egin bide zen Santa Klaran, osotara gaisotu, eta alborengoa jota ibili zen.

Eta, sendatu zai, *sei bat aste eman behar izan zuen Antiguako Monastegiko pausalekuau*.

Eta, osatu zelarik, *bertan predikatu bide zuen behin*, Ondarretako olatuen soinua entzuten zuelarik...


Oso sinesgarria da, hitz batez, Santa Klara Uhartearen ermita bat eraikitzeko ideia (edo-ta berreraikitzekoa) Asiskoaren garunean egun haietan sortua izatea.

Nahiz, ondoko orrialdeetan ikusiko dugunez, Santa Klara Uhartea *inoiz ez izan frantziskotarren jabegoa; ezta klarisena ere*.



Uhartea XIX. mende bukaeran

Farora zabaldutako bideak berri kutsua du. [Fototeka: 143-23 8 944-I]





Nondik nora *Santa Klara* izendapena?

Clara Scifff Asis-tarra, geroko urteetan *Santa Klara* bihurtzekoa; *Klarisen* fundatzailea (1193-1253), osoki zen Frantzisko Sainduaren herrikide, bidaide, gogaide, eta jarraitzaile sutsua.

Berau baino 11 urte gazteago, biziera-arautegirik gogorrena aukeratu zuen San Frantziskoren beraren eskutik eta ahokuz; de facto frantziskotarren *Bigarren Ordenako* bere monjentzat propio pentsatua.

Hau sinesten ez duenak aski du Tolosa-ko harri beltzezko gartzela idor itxurako komentuari, kanpotik besterik ez bada begiralditxo bat ematea...

Eta ohartxo bat datei buruz.

Ikusi dugunez, **Santa Klara** izendapena ezin izan daiteke 1253 baino lehenagokoa. Noski.


San Bartolome-ko komentua, Aldapeta-koa, 1244koa da.

Eta *Loreto*-ko aldaera bitxia, 1291koa.

XIII. mendean gaude, bete-betean; alde askotatik Elizak ezagutu duen gailurrik oparoena.

Hots, **Uharteko Ermita** ere (ikus IV.Kap.) garai berekoa da gutxi gora-behera, pittin bat beranduago altxa bazen ere (1362, *Murugarren*)






Donostia, 1723; Hércules Torrelli (tonboloa ageri)

IV

ERMITA ZAHARRAREN BILA



Sanct Sebastianum, vulgo Donostien (J. Hoefnagle, 1572)
[J.J. Arbelaitz. Grabados y Planos. 9. orr.]

Ermita uhartearren gailurrean agertzen da, eta eraikinak bikuna dirudi (ikus Piñeiro, Orella, Sáez García-ren bilduma, 164, 124-125 planoan; Gipuzkoako Diputazioa, 1994).

Joris Hoefnagle marrazkilariak (Antwerpen 1542 / Wien 1600) bista asko utzi zituen, Donostiako hau barne.

Hots, behin eta berriż idatzi izan da Uharteko Ermita guztiz porroskatua izan zela: bai 1719ko gerlakoan, lehendabiziko aldiz;

eta baita 1813ko gertaereten, Donostia bere %100 an erraustua izan zelarik.

Arrastorik gabe suntsitu zutela-ta, egia ote da? Bai eta ez. Nahiz funtsean EZ erantzun beharko dugunez.

Hona hemen, hasteko, Peña Santiago kronikariak idatzi zuena: “De la antigua ermita ya no queda rastro alguno; a la que, eso sí, legó su nombre Santa Clara”. (*Las ermitas de Guipúzcoa*, Gipuzkoako Foru Aldundia, 1995; 146. orr.)

Eta gauza bertsua idatzi du A. Agirre Sorondo ikertzaile zorrotzak berrikiago: “La Ermita de Santa Clara quedó totalmente arruinada” (*Ermitas de Guipúzcoa*, 1994; 154. orr.)

Tamalgarria. Aspaldiko mendeetan Uharteko Ermitak sona han-dia izan zuela somatzen dugulako.

López Martínez de Isasi lezoar kalonjeak, adibidez, lerro bakan baina mamitsu hauek utzi zizkigun puntu honetaz (1625): “28 –Santa Clara– Hermita en una isleta que está en la Concha de San Sebastián. Está a cargo del convento de monjas de San Bartolomé; y el dia de Santa Clara va a ella mucha gente por devoción” (218).

Ermita ez zen txantxetakoia izarien aldetik, aurreko orrialdean berehala hauteman daitekeenez.

Hasiak gara, beraz, Santa Klara-ren Ermita nolazpait kokatzen. XVII. menderako famatua zela ageri da; eta Asisko Klararekiko jaierak, jende asko erakartzen zuela bertara.

Froga grafikorik ezagunenak J. Hoefnagle flandriarrak utzi zizkigun.

Saez Garcíak eman ditu antwerpendar honi buruz. (Ikus *Documentos Cartográfico-Históricos de Guipúzcoa*, 1994)

1563tik 1567ra bultzatzaile nagusi izan zen Hoefnagle geografilaria *Civitates Orbis Terrarum* bilduma seikunaren prestakuntzan; eta, besteak beste 313 lamina miresgarri burutu zituen.

Sei multzoetako lehenengo liburukian, hain zuzen, Burgos ikusten da goiko erdian; eta Donostia beherekoan (kapitulu honen has-tapenean inprimatua).

Uharteko Ermita *gain-gainean* zegoela ikusten da argi, plantan L forma zeukan batimendu *bikun* batean; bi batimendu desberdinok elkarri eratzekirik. Koloretan ikusi nahi ezkerro, aski du irakurleak Juan José Arbelaitz-en bildumara jotzea: *Grabados y Planos de San Sebastián*, 1993; 9. orr.

Baina gaur egun erreferentzia nagusi bihurtu da J. A. Sáez García, jadanik aurreko lerroetan aipatua (ikus, grabatu honi dago-kionez, 124-125 orrialde bikuna, koloretan), eta gure lanari dago-kionez, ondoko hauek gailentzen dira (denak 1725 eta 1726 urteetan marraztuak):

168, 169, 170, 171, 172, 173, 174, 175 eta 177.

Interesgarriena hauxe: *Plano de la Isla de Santa Clara* deritzona: *177* errerepereko, 1726ko Maiatzekoan



Eta aurrera segi baino lehenago, eta **Ermita** non zegoen garbi ikus-teko (hori baitugu lehenengo erabakizuna), egin dezagun, ezagutzen ditugun dokumentuen artean, nola-halako bilduma labur bat.

Bista asko eta askotan, *gehienetan, gailurrean jarri zuten Ermita*: 1560 (Sáez, "96"); 1777 ("87"); 1780 ("82"), eta abar. *Piralak* ere bai (136. orr., "85").


Baina sarritan marrazkion fantasia nabarmena denez, ahal dugun guztietan planoetara joango gara.

Eta oro har bi plano fidagarri hauek hartu ditugu geure iker-kuntzaren oinarritzat.

Alde batetik, 1979ko Abenduan **Jose Ramon Luzuriaga** Bide-Inginariak Donostian marraztu zuena (1/500). Oraindik gaur ere, puskatu ez direlarik, hortxe daude mahaiaik eta gainerakoak. Eta 1956koa baino askoz zehatzagoa da.

Eta hortxe dauka irakurleak, ondoko orrialdean.

Eta bestetik, koloretan, 1726ko Maiatzean **Prospero Verbom** flandriarrak marraztu zuena; eta gure iker-lanean erabat funtsezkoak, kolorezko bidumatxoan.



Uharteko gailurrera igotzea beti izan da zaila. 1726an Verbom-ek argiro esan zuenez: “*inaccessible por todas partes*”.

Lehenengo metroak gainditzea izan da bati arazoa. Goiko belazea, berriz, Ermitaren ingurukoa, leuna, atsegina.

Gure kalonjesak, hala ere, goraino iristen ziren... Eta meza entzuten eta eresiak kantatzen zitzuzten.

Eta badirudi (plano zaharrak eta modernoak arretaz alderatuz) orduko gorabidea eta gaurko aldapa nagusia, barrukaldekoa nolabait esateko, ez direla elkargandik sobera urruntzen.

Garbi ageri da, hori bai, **Farola** berria eraikitzerakoan (1863-1864) eraberritu eta txukundu zutela antzinako estrata estua. Arreta jar, esate baterako, Lugaritz-tikako foto famatuari (1880 c.a.). (Ikus III. Kap.). Lubiziak eta lur-gorriketak berri antxa ageri dira, han esan genuenez.

Gaur beheko tabernaren gaineko bihurgunera inoiz iristea ematen zituen lanak.



Prospero Verbom inginariak, proiektu oso bat aurkeztu zuen “Reales Ejércitos” delakoetan 1726an, 1719ko okupazioaren ondoriozko kalteak erremediatzekotan.

Ondoren datorren Azalpenean (“Explicación” planoan) irakur dai-tekeenez, Uharteko *Iturri Zaharra* aipatzen da: “Agua no les falta-ría, al existir una fuente permanente al N.O.” (ik, art. 177, 152. orr.; in *Documentos Cartográficos Históricos de Guipúzcoa*. Zuzendari Teknikoa: Juan Antonio Sáez García; arg. Gipuzkoako Foru Aldundia).

“Explicación” izenekoa irakurt-erraza ez delakoan, kopiatu egin dugu 46. orrialdean.

Eta berriro ere arestian egindako oharra errepikatuko dugu: Azalpenea ematen duen planoan, beronen behikaldean bilatu behar da itsasoa.


Beste ohar pare bat.

Gorriz agertzen diren batimenduak (A eta B) eraikita zeuden.

C eta D murruak, berriz, proiektu mailan gelditu ziren (planoan marroiez margoturik)

Ermita inguratuz bateria bat altxatzea proposatu zuen Verbom-ek, kanoi-zuloz hornitua; baita bolborategi bat ere Iparraldewan (E).

Prosupostua: 106.000 errealkuarto.



Ikus dezagun Verbom-en planoaren xehetasuna Ermita-inguruaz.


Azalpena

- A - Santa Klara-ren Ermita
- B - Artilleria - lanabesak gordetzeko proposatzen den barrukia.
- C - Azkeneko setialdian egin ziren lubakiak.
- D - Etsaiaren lubakiak iristekotan projektatutako bateria.
- E - Proposatutako bolborategia.
- F - Ur laisterrezko iturri etengabea.
- G - Moila, arrokan zulatutako eskailera.
- H - Hortixeik igotzen da orain harrian barrena iretitako ildotik.
- I - Itsaso Txikian agrian geratzen diren haitzak (hemen Verbom-en oharra, errakuntza da: ulia beharrean Igeldo adierazi nahi zuen)
- K - Kai-sarrera.
- E, F, G,... erreferentziak ikusteko, 4. planora joan behar da.

Hortaz, gain-ezarketa egiteko, bi plano: 1971koa eta 1726koa.

Orain eskala-trukea egin behar da 1726koan; eta orduan *Ermita zaharra* gaurko planoaren gainean ezarri (1971koa). Badakigu toesa batek 1,95 metro dituela.

Horrela egin dugu, eta ondorioa harrigarria izan da.





Geronek prestatutako “*Ermitaren kokagunea*” planoan horretan ikus daitekeenez, edonor zurtuta uzteko modukoa izan da bion arteko bateretasuna.

Hura zirrara!

Bai Ermita, bai Mendebaldetik erantsita zegoen Ermitauaren etxetxoia, baita itxuraz inora ez bide daramaten eskaileratxoak ere, argi itsugarritan blaiturik agertu zaizkigu.

Gutxitan senditu dut mementu haietako zauskada: 270 urte joanik ere, dena zehatz kokatzen!



Lortu dugun gain-ezarketa planoan berehala uler daitekeenez, handia zen Ermita. Hoefnaglek errealsismoz egin zuen bere lana.

Eta Donostiako batimendurik zaharrenetakoa gainera.

Eta erabat hetsia Ipar et Ekiadetik.

Hortaz, gaur egun *goiko tabernatik gora* doan zurezko eskailera ez da zaharra. Pareta itsu batera eramateak ez luke funtsik. Eta 1971ko planoan zurezko eskailera horren arrastorik ez egoteak, ondorio berera garamatza.

(Ikus zurez eta soka lodiz gauzatutako eskailera hori ondoko orrialdeetan).

Ermita erre ondoren gelditu den basamendu hori (harrigarriro gordea), hemen batzutan *goiko talaitxoa* deituta, guztiz funtsezkoa izan zaigu Ermita zaharra kokatzeko.

Ermitak izari hauek zituen: 13,25 metro luze, 8,00 metro zabal. Eta zabalera, hortaz: S=106,00 metro karratu.

Ermitauaren etxetxoak, berriz, 9,25 m. x 4,00 m.; S = 37,00 metro karratu. Ez zen, jauregia! Eta neguak, segurki, goxo ez beretzat... Nahiz Iparraldeko pareta itsua izan.

Ermitau hori frantziskotarra izaten zen normalean.

Aldarea, berriz, Ekiadeko pareta itsuaren kontra jarria, 2,80x1,20.koa.

Bisitariak, beraz, Hegaoaldeko atetik sartzerakoan, eskuin aldean topatzen zuen.

Zenbait grafikoren arabera, Ermitak kanpai-horma zeukan (erd. espadaña). Donostiara begira, nolazpai esateko (berrikus Torrelliren planoa).



Santa Klararen Ermita *gain-gainean* zegoen. Heina: +50,00 inguru. MN murruaren gainean.

2001an ateratako argazkietan (Faroaren ondotik, Hegaoaldera begira), ongi konpreni daiteke Ermitaren murruak nondik abiatzen ziren gorantza.

Oraindik ere, nahiz kaxkarturik eta lizundurik, topatzen ditugun harmailek (A letrakoak gure planoan) Ermitara bideratzen zuten.

Poz paregabea nirea hau guztia piskanaka ulertzean. Kezkatan eta urduri emandako ordu piloaren mailakoa!

A harmailadi motxak (5 koska) P2 zabaldunera zeraman erro-mesa; eta hortik P1 zabalunera.

Eskuineko formatxo baten ondotik (azkeneko urte hauetan lubizi batek desagertua), C eskailerara irits zitekeen (ikus Luzuriagaren planoa); eta hau igota, Ermitako atari nagusira hel.

Hortik Mendebalderuntz doan ezponda zaharra, gaur landarez eta zuhamuskaz mukurru, Ermitaren mugaren lekuko dago.

Lur-mogimendu horren froga MN murrua bera dago (Faroaren Mendebaldean dauden mahaien ondokoa).

Arrailduran (egurrezko eskudelaren azpian) eta harri mokorren kolore-desberdintasunean, egondako lubizia ezagun da.

Bidenabar, *goiko ordeka* aurkez dezagun.

Aspaldiko denboretan Ermitaren atzekaldea izana.

Eskuin aldera joanda, 5 harmaila igo Dtik. Eta Elkarteko Adiskideek erdaraz *Campa del Olivo* deitzen duten zelaitxora iritsiko gara.

Ermita hortxe zegoela jakinda, zergatik ez *Ermitagaña* deituko? Horixe da nire idarokitzapena behintzat.



Goazen orain *ohar botaniko* batzuk egitera.

C puntuau aurkitzen dugun **makal anduia** oso oso zaharra ezin izan daitekeela esan digute teknikoeik.

Baina, hau bai, *balitekeela* 1813an hantxe bizirik zegoen makalondo zaharraren *kimu berriago baten arrastoa izatea*.

Eta hipotesi honek balio handia du guretzat.

MN horma-gainetik 7,00 metrora dago; eta, hain zuzen, E-W norabidean gelditu den hesiaren ondoan.

Ermitako ataria Cn zegoen. Eta atalgunetik aldarearen hormaraino... 7,00 metro daude.

Honek beste *mixterio* bat argitzen digu. Zergatik hortxe, C puntuau, sekulako anduia? Uhartean ez baitago zuhaitz handirik.

Planoak berrikusiz hau ageri da. Eta atea makalondoaren ondo-ondoan ematen du.

Bigarren makal bat (berau gaur bizirik, eta Mendebalderantz joanez 0,60 m. enbor-diametrokoa) G puntuau dago. Atearen tartea pasa, eta segituan.

Badirudi hor, alde banatan, bi makalondo zeudela.

Ermitaua, bestalde, Etik, barrukaldetik, kanpokaldera irten gabe, sar zitekeen Ermitara.

Ermitara sartzeko, hitz batez, bi modu zeuden:

1 / *Goiko ordekatik*, eta Ermitauaren etxetik;

2 / *Erdiko aldapa nagusitik gora*, P1 eta P2 zabaluneetan barrena, eta C eskailera igo, eta atari nagusitik.



Baina itzul gaitezen gu geure harira eta plano nagusira, eta Cko andui zaharrera.

2001ko Irailaren 21an, goizeko 9etan (itsasaldiak markatu baitzigan ordua), bisita *botaniko* bat egin genuen.

Eta arestian emandako iritziak goiz hartako ondorioak izan ziren.

Anjel Isturitzek eraman gintuen bere ontzian. Bera da, aspaldianik, *Kaia-Uhartea* lotura bermatzen duena.

Bera barne, lau lagun joan ginen. *Bi botanikariak* hauek izan ziren:

- Antton Gómez Lorente adiskidea. Arabarra, Diputazioko basozaina.
- Pako Garin, aholkulari buru gisa jokatu zuena.

Uhartean berez sortutako zuhaitz handirik ez dagoela. Ezer sorzekotan, makalondoa (*Populus nigra*). Bainaz zuhaitza hilez gero, ehun bat urtetan, *usteldu egiten dela zura*; eta hortaz *desagertzen*.

Berez Uhartean sor daitezkeen zuhaitzak hauek direla: gurbitzak, zumarrak eta erramuak.

Badirudi, beraz, Ermitak bi makaldondok babesten zutela.



Argitzapen topografiko pare bat orain: Uhartean gora doan galatzadarrikos estrata, bere horretan, 1864koa dela.

Hots, plano zaharrak zehazki ikertuz gero, hau ondorioztatzen da: Ermitara igotzen zen bide zaharra ere, hortixeek zihoala.

Eta beste hau. Berwicken okupaziokoan, porroskaturik gertatu zen Ermita. Bainazazpi urte beranduago Verbomek marraztu zuen planoa ikusita, eta gain-ezarketa tentuz egin ondoren, lehengo batimendu bera berreraiki zutela. Eta 1723an zutik zegoela berriro.

Aurrera baino lehenago, erakuts ditzagun orain argi emale gerta daitezkeen lau foto hauek.

Hasteko hau: gaur egun *goiko tabernatik* gorantza (eta Hegaoalderuntz) doan eskailera bitxia.




Ondoren Fototeka-ren bidez lortu dugun biltegi zaharraren irudia (434-34 (71535-8)).



Ondoren, Biltegia gaur. Burdinazko berja desagertu egin da. Eta lekua tresnategi bihurtu da.


Pareta txurian “Gora Olaia” hitzak irakur daitezke. 2001ko udan (argazkia egin baino lehenago) hildako Olaia Castresana euskal militantea oso Uhartezailea baitzen, beraren familia guztia bezala.



Laugarrenean, berriz, 1980 inguruko lubiziak desitxuratu zuen eskualdetxoa agertzen da.

Argazki honetan ozta-ozta ageri, harri mokorrezko ilarak agertzen dira, askotan paralelo (tartea 0,80 metro). Irola fundazioak dirudite tarteka. Edo-ta hilobi aztarnak. Edo gela hextu ziztrinak.

Gerrako barruki aztarnak ote dira?



Bi aldiz egon da Santa Klara setiaturik. Hortaz, noizkoak ote dira harri ilara horiek?

Lazaretoak datozkigu burura.

Murugarrenen ikerketei esker badakigu. Uhartea *desterratu leku* izan zen: izurridunak, presoak, eta abar, hantxe zituzten *heriotzak lizentzia eman arte* ...

Desterratutako horiek P1 eta P2 zabaluneetan gerizatzea, normala litzateke: egutera, eta haizeetatik Ermitak berak babesturik.


Zein setialditakoak ote dira?

Gaur badakigu (Antonio Idiáquez ~J.I. Telletxea Idigoras, 129; in *San Sebastián 1719– Asedio del Duque de Berwick*) 1719ko Uztailaren 14-15 gauean, gogor eraso zutela Uhartea Arrobi-tik. Eta Uhartearen zeudenek erantzun egin zietela *con sus mosqueteros y cañoncillos*.

Eta biharamonean *nuebe varcازas ynglessas lo intentaron en bano, por haver sido obligadas a retirarse*.

Nonbait egiten zuten lo soldadu haiiek; eta nonbait lortzen zuten edateko ura (gogoan har *Iturri Zaharrari* buruz dagokion kapituluan agertuko dena).


Bestetik 1878ko plano batean, eta 1813an egindako lan militarren ondorioz, 3 kanoiren aztarnak topatzen ditugu.




Uhartea 1915 urtean (Fototeca, 324.52 (H. 112)).

Santa Klaren bilakaera argazkitan

Lehenengo honetan (c.a. 1900) Dorretxeak solairu bakarra du; eta Arrobiko Farola zaharra oraindik ikutu gabe.



Eta beste honetan 1912ko itxuran (Arrobiko lanak hasiak dira). Baino Urgull-peko Pasealeku Berriaren lanak (1915) hasi gabe.



Ohar batzuk orain Uharte erlijiosoari buruz.

Zenbat meza ematen zen Uhartean? Noiz?

Erantzun zehatzak eman ditzakegu gaur.

Elena Legorbururi esker (*El Monasterio de San Bartolomé*, 83) hau esan dezakegu: 1839ra arte, Donostiako Monastegian 223 meza arrunt ematen zirela. Kantatutakoak, berriz, 37 ziren.

Hauetako bat Uharteko Ermitan ematen zen: Santa Klara egunean. Alegia, Abuztuaren 11an (haseran 12an izan ondoren).

Ez dakigu noiz arte. Ermita 1813an erraustua izan zelako.

Kronikariek kondatu digutenez (Ordóñez en lerroak berrirakur), San Bartolomeko Agustindar Kalonjesak txalupaz abiatzen ziren Kontxako hondartzatik, eta Uhartera iristean goruntz abiatzen.

Lehorreratu artean, Monastegiak bere kanpaiak entzun erazten ziten. Eta Uhartean meza entzun eta bezperak kantatu egiten zituzten.

Segidan, *goiko ordekan*, eta egun luzean barrena (Abuztuan) txistua eta danbolina jotzen ziren.



Bi galdera amaitzeko.

Noiz eraiki zen Ermita?

Puntu honi buruz A. Luis Murugarren Zamora historilari jakintsua dugu oinarri nagusia: La ermita de Santa Clara es de 1362. (*Bol. Est. Hist. de San Sebastián*, 30, 380-381-382. 39 oharra).

Besterik ba al dakigu ziur?

Hona hemen, beti ere Murugarren berari esker, xehetasun bitxi hau (1581ko Apirilaren 9ko dokumentua), Donostiako Udalaren berri emanez. Pasarte nagusiak hitzez hitz kopiatuko ditugu: *que el responsable de la Puerta Principal Sebastián Novillas, y demás..., tengan mucha vigilancia y cuidado e no dejar entrar ninguno de los sobre dichos marineros por mar ni tierra ni ropa alguna de ellos ni otra jente ni mercadurías, qual biniere de la Andalucía ni Lisboa; y que luego se haga trastejar (retejar nuevamente) la hermita que está en la isla de Santa Clara, y por ella su puerta y cerraja; y que todos los marineros y jente que biniere de dichas partes se eche a la dicha isla... y encargaron a los señores jurado Guarnizo y regidor Antonio de Amezti que adrecen la dicha hermita y pongan el maderamiento, puertas y teja que hubiere menester... y salgan de dicha villa (= S.S.) y su*

jurisdicción o se bayan a encerrar en la ysla de Santa Clara, y no salgan de ella asta que por sus muertes tengan lizenzia...

Hil arteko desterrua jasateko lekua zen Santa Klara XVI. mendean...

Ermita agerian, eta zaindari eta lekuko bakarra (uste dugunez) ermitaua zegoelarik...



Eta orain bigarren galdera, nik planoen *gain ezarketa asmatu* baino aisa lehenago adierazia. Alegia:

Non zegoen Ermita?

XVIII. mendean, hitz hauek utzi zizkigun lekuko aparta izan zen Joaquín Ordóñez historilarik:

Hay una isla, a poca distancia del castillo, que se llama de Santa Clara. Donde está en lo más alto una ermita bajo la advocación de dicha santa.

Es toda la isla del Monasterio de San Bartolomé. En ella se dice misa cantada de orden.

Y a expensas de dicho Monasterio, aquel día hay otras muchas misas. Y entre año su estipendio suele ser por lo menos un peso fuerte, desayuno y barco pagado.

Todo el día de Santa Clara hay también tamboril y bolos; y todo lo registran con sus catalojos las señoras de San Bartolomé, las del Antiguo y las de Santa Teresa.

Es más reducida esta isla, y más baja que el castillo. Y entre isla y castillo hay como un tiro de fusil.

Pasan navíos por grandes que sean para entrar en el muelle, porque es un canal muy profundo.

(San Sebastián en 1761. Descripción de la ciudad, sus monumentos, usos y costumbres. - Ed. Ayto. de San Sebastián, 1963; 45-46).

Miguel Angel Sánchez Terry-ek ere bere bidetik Ordóñez-en esanak berretsi ditu: (*el Faro de Santa Clara*) situado en la parte más alta de la Isla, se levantó junto a las ruinas de una antigua capilla (ik. *Faros españoles del Océano*, 1999; 22).

Zehazki hitz eginda, ordea, Ermita zaharraren hondakinak baino metro batzuk (3,00 batez beste) beherago eraiki baitzen Faroa.





Egin dezagun aurrera 90 urtez.

1813ko Ekainaren azkeneko egunetan, eta berehala bide zetorren erasoaldi anglo-portugesari aurre egiteko, Rey frantzes jeneralak Donostia okupatu zuen.

Santa Klara ere bai. Eta bertan 25 soldadu kokatu zituen, eta Ermita gotor-leku gisa moldatu zuen; “envahisseurs” delakoengandik babesteko.

Uztail osoa eta Abuztua ere ia osoa, horrela joan ziren. Eta Donostian, halako menia faktikoan pasa zituen; nahiz, beldurrrak, noski. Anglo-portugesak Lesaka aldean zeuden, zai.

Abuztuaren 26an barealdi hura *etetea* erabaki zuen Wellington-ek. Eta, gureari dagokionez, 200 soldadu bidali zituen Santa Klara-ra. Bertako goarnizioa (25 soldadu, arestian idatzi dugunez), preso altxatu zuen eta Iruñera bidali. Eta bertako Ermita (zutik oraindik) gotorleku txiki bihurtu zuen.

Baina Wellington jeneralak Abuztuaren 31an, Donostia osoa okupatzea erabaki zuen. “Garbitu” egin nahi zituen bazterrak; eta Uhartea eta Ermita ere bai.

Eta horrela izan zen. Hiria erre zuten gupidarik gabe.

Eta Uharteko Ermita **zaharra** ere bai.

Donostiako batimendurik zaharrenetakoari (1362), agur betirako.



Uharteko bi tabernak

Hasteko, hemen du irakurleak *goikoa*.



Hots, puntu hau hasteko: *goiko taberna* deritzoguna ez dela beti hor egon.

Zenbait urtez biltegia (“almacén”) izeneko barrukian egon zela, Faroaren ondoan. (Berrikus *Kokagunea* izeneko planoan).

Gero, 1964-1979 urteetan, Karlos Marinek atxeki zuen.

Eta 1979an Luis Fernández Matak hartu zuen, hiru lagun gazterekin. Orain dela urtebete utzi arte.

Beheko taberna, berriz, Jose Luis Ceballosek atxeki zuen luzaz.

1997an Luis Fernández Matak (eta Nerea Bazo beronen emaztearekin), orain arte baliatu izan duelarik.

Eta, zer nahi duzue nik aitortzea?

Goiko tabernak, arestian ikusi dugunak, bazuela bere poesi punttua. Luisek prestatutako *massiel* mekaniko bitxi hura, eta iku-rriña, eta itsaso zabala atzekaldean, eta zuhaitzak eta zuhamuxkak. Taberna hura *basatia* zen.

Beheko taberna hiritarra, aldiz, homologagarria, modernoa, mixkina, dutxen eta parasolen artekoa, ez dagokio Uharteari.

Nahiz (hau ere esan behar da) mainu-leku *aparta* izan. Irailean batez ere; itsasoko urak tabernako zorua eta bezeroen oinak etengabe bustitzen dituelarik.

Beheko tabernak, azkenik, ez du **mahats-parrarik**.



Hots, *goiko tabernan* (irakurleak eskainitako fotoan egiazta dezakeenez), *ezker aldean*, badago **mahats-parra bat**.

Baditu Uharteak pikuak; eta usain berezi eta sarkorra ematen diote eguratsari.

Baina mahatsondo hori ere badu. Eta honek ale goxoak ematen ditu. Tabernako barraren gainean, hain zuzen.

Eta mahats-parra horrek... Nafarroara eramatenean nau, ezinbestean. *Gesalatz ibarrera. Muetzen preseski, etxe famatu bat baitago: La Casa de la Parra.*

Karlisten artean leku sakratua. **Don Carlos biak**, Aitonak eta Bilobak, mahatsondo haren gerizpean babesten baitziren.

Putzu nobela idatzi nuenean (ikus 230. orr.) zuhaitz sonatua eza-gutzera joan nintzen. Ihartu berria zen bertakoeek azaldu zidate-nez...

Eta nork bere temak ditu, eta nik ere neureak.

Eta nahiz Uharteko *goiko taberna* ez izan, dotorezian eta kastan, Ulibarri-tarren jauregi ederra, esan beharrik ez dago... hala ere gure txabola kaxkar horrek badauka, eduki, bere... **mahats-parra**.

Eta mahatsondo hori inoiz ihartuko balitz, ez litzateke izango guk ezagutu dugun eta sagardo botila bat edanez dastatu genuen *goiko taberna hura*.

Ez naiz ni, hain zuzen, euskal karlismoaren gurtzaileetakoa. Ez horixe.

Baina Muetzen nafartarrek, eta euskaldun askok eta askok, eza-rritako esperantzak, ikutu egiten naute.

Gure arbasoek lurralde eder haietan senditutako zirrara, nigan ximiko izkutu bihurturik, ezin uxatuz.






Gorago zegoen Ermita
gaurko goiko taberna
baino.

Horregatik gaur, goiko
talaitxotik *goiko taber-*
nara joateko, jaitsi egin
behar da.

Verbomen planoan
ikusi duguna, argiturik
gertatzen da.

Amaitzeko lau foto eskainiko ditugu zuri-beltzean.



Lehenengoan Farorako sarrera ikus dezakegu, erdiko aldaparen amaieran. Fotoa Ekialde aldera hartua dago. Heina: + 44,50.

Atzekaldean Dorretxeko leihu bat errepara daiteke, ezkerretan.


Ermita, berriz, ezkerreko murruaren gainean egon zen.

Zutarri horietan, bestalde, atarikoak, burdinazko kuntzeak daude. Herdoildurik. Ez baita harritzekoa: 1864ez geroztik, 137 urte joan dira. Haize zakar eta kresal giro latzean.

Bigarren honetan, berriz, aldapan beherako hasera ikus daiteke.

Fotoa Mendebalderantz begira hartua izan da.

Arribizketako bokale edo harraldeaz bestaldera, *Tenis* aldea agertzen da.



Hirugarren honetan erdiko aldapan behera goaz. Aurreko fotoa baino gorago hartu da bista hau.

Eskuin aldean dauden harmaila horiek, *Ermitara* eramatzen zuten.

Gaur, berriz, *goiko ordeka edo talaitxora* daramate



Hain zuen ere, *goiko ordeka edo talaitxo horretantxe* (alegia, Ermitaren zorua egon zen heinean) ospatu ohi da urtero, meza batez, Santa Klararen Eguna, Abuztuaren haseran.

Aita German Arrizabalaga ikus dezakegu. Karmeldarra, azkoi-tiarra, batzutan eterri izan da Uharteko ospakizun horretara.





Uhartearren xehetasuna.

Inginari militarra; Carlos Ag. Giraud.

Plano Magistral: 1776 jun. 3.

In "Documentos Cartográficos Históricos de Guipúzcoa", II, 1999, San Sebastián.

Egileak: J. Gómez Piñeiro / J.A. Sáez García - 156/157 orr.


Harritzeako argitasunean ikus daitezke:

- Ermita zaharra
- Ermitauaren txabola (hauek gorri)

Gaur ermitagaina eta goiko zelaia beteaz, 10 lursail agertzen dira, berdez; ermitauak nekazaritza-alor gisa erabiliak (4+3+3).

(Ikus kolorezko bilduma).

V **ITURRI ZAHARRA**



Iturriako bidean

Verbom-ek idaroki bezala (1726) iturri honek garrantzi militar handia izan du mendeetan zehar.

Eta hormaren egiturak, sendo eta arretaz egina, eta gero ere ongi zaindu izanak gauza bera adierazten dute.

Donostia plaza militarra izanik, aspaldidanik zekiten *Santa Klara Uhartearen ur arazorik ez zegoela.*

Mendebaldean, “Arruegi” parean, *Arribizketa*-ko bokalean, iturria ezagutzen zuten aspaldiko kronikariek.

Hemen sarri aipatua dugun Verbom-ek bereziki, hauxe utzi zuen izkiriaturik:

F - Fuente de agua dulce perene (1726).

Eta, Faroko pozaderak salbu, horixe izan zen bertako ur laistezko hornibide bakarra 1956ra arte. Donostiako ura Uhartean era-biltzea gero urte honetan hasi zen.

Hots, guk egindako fotoetan ageri denez, gaur ere, xirripa urria besterik ez bada ere, **Iturri zaharra** hor ari da, taigabe, gure fotoetan egiazta daitekeenez.


Iparraldetik beheruntz doan bideska (tarteka bidezior, tarteka eskailera saila), oraindik ere, jakin minez, inguru hartara hurbilten diren bainuzaleek dastatzen dute. Nik neuk ere bizpahiru aldiz hartua dut. Gusto txarra ez du!

Azkeneko tarteak, benetako eskailera, alegia, behera eta urma-heleraino iristen dena, arriskugarri dago. Maiz oso heze egoten dela-ko. Eta eskudelik ez duelako.

Hiru sail ditu, goitik behera zenbatzen ditugularik. Lehenengoak 11 maila, gero 17 maila, eta azkenik beste 11. Guztira 39. Eta txarrak.

Aisa soma daiteke bai *Ermitauak*, baita ondoko urteetan *Dorrezaínak* ere, neguko gau euritsu eta haizetsuetan (itsasertz honetan arruntak, egia esan), bereak eta asto beltzarenak ikusten zitzukeela ur bila jaisten zirenean.

Aldapan behera joaki



Iparraldean itsaso zabala.

Argazkiaren eskuin aldetik, *Faro-rantz* doan “atzeko bidea” (Iparraldeko); ozta-ozta ageri aurreko fotoan, eskuin aldeko angeluan preseski.



Iturria gaur (1997)

Ipar (= ezk.) eta Ekialde (= esk.) inguratzen duten horma zaharrak ageri dira, harri gogorrean.

Ur-biltegiaren ingurueta, berro ugari egoten da, ur geldian blai.



Iturri Zaharra-ren ondoko zabalune urtsuan, belarra eta beste sortu dira istiletan.

Fermin Muñoz Etxabegurenek Donostiako *iturriei buruz* argitaratu berria duen *Edateko ura Donostiako historian* liburu dotore zehatzean (elebiduna) ohar txiki bat dator Uharteko Iturriari buruz. Baita foto bat ere; erabat hemengo bildumatxoan sartu dugunaren antzekoa.

Beheragotik, iturriaren altzoa ikus daiteke (dena belar-gaisto); eta eskuin aldeko txokoan, arretaz begiratuz, iturriaren urmaheltxoa.

Bidea harmaila andana bihurtzen da.

Gain borobildua duen murrutxoan, garaikidea dela pentsa daiteke, eta XVIII. mendekoa, beraz. Sáez Garzia jakitunaren iritziaren zai gaude.



Guk, dena dela, okupazioei buruz ari garelarik, mintza gaitezen biotako lehendabizikoaz.

1719koaz, ordea, ezer gutxi genekien orain arte.

Gaur, berriz, Telletxea Idigoras-en aurkikunde eta argitaraketaren ondoren, xehekiago ondoriozta dezakegu 1719ko udan, *soldaduen beharrak asetzeko, Iturri Zaharretik edan zutela ausarki eta ezin-bestean* (ik. *San Sebastián 1719. Asedio del Duque de Berwick*, Dr. Camino argit., “Monografías”, 51. zb., 2002).

1719ko Ekaíneko azkeneko egunetan, *Uharte gotortzea* erabaki zuten Donostiaren defentsa gidatzen zutenek. Eta La Motak (Gazteluak, alegia), *Alzibar Maiorra* bidali zuten Santa Klarara (orotarri bat merezi luke oiartzuar saiatu honek!)

Berau *Uharte*an lehorreratu zen Azpeitiko 3 konpainia-rekin; eta Uztailaren 4rako gertu zeuden gure giputz haiiek guduan hasteko.

Eta egun berean (VII - 4), ingelesak saiatu ziren. Horretarako frantses granaderoz osatutako 9 konpainia erdian kokatuz.

Ontziek taigabe desarratzen zituzten beren 150 kainoiak, ezker eta eskuin. Eta gauza bera egiten zuten Kontxatik eta Ondarretatik.

Azkenean, eta ordu t'erdiz latz borrokatu ondoren, uxatu egin zituzten erasotzaileak.

Egoera hartu behar da kontutan. Espainiaren kontrako elkarre internazionalak (Ingalaterrak, Austriak eta Frantziak elkar harturik), Donostia okupatu nahi zuen (berau mementu hartan gotorleku famatu); eta horretarako La Mota-ko militarrek, *Santa Klara* menderatzea esijitzen zuten.

Etsaiek *Igeldo (Arrobi)* gotortu zuten, trintxerak eraikiz; eta hauetatik *Santa Klara* fusil arraiadunez erasoz.

Uharte-koek gogor erantzun zieten *inbaditzaile elkartuei*, zituzten mosketeak eta kainoitxoak etengabe erabiliz.

Gauza bat atxeki behar du irakurleak gogoan, gerla hau ulertuko badu.

Donostia, Gipuzkoa, Espainia, “gureak” zirela. Ingelesak, Austriarrak, Frantsesak, berriz, “etsaiak”. (1719ko gerla honetan bakarrik, noski. Gerlatik gerlara, errege-ezkontza edo eliza-buldaren bat aski baitziren, etsaiak lagun, eta lagunak etsai derrepente bihurtzeko...)

Uhartea, nolanahi ere, dexentetan gertatu zen okupatuta. La Mota-ko militarrek etsaiez “garbi” ikusi nahi zuten Santa Klara; eta ez, inolaz ere, politikarien erabakien arauera, Donostiako “zaindari” saindu eta legalen menpeko.



Iturriako bidea berehala erpintzen da, eta bideska harmaila-sail bihurtzen.


Eskuin aldean txilar morea loretan (udazken hurbilaren zantzu). Gure **Bittoriano Gandiaga** urtero tristatzen zuena.

Hots, txilarrok eta piku-usainak ematen diote uda-amaieran **Santa Klara Uharteari** azaldu ezinezko malenkonki kutsu sarkorra.



(Ikus foto horiek koloretan, kolore-eranskinean).

VI
IHIZTARIEN TXABOLA



Planoa José Clemente de Osinaldekin burutua izan da, koloretan.

Izaria — 0,90 m.x 0,75m.

Data: 1858ko Urriaren 15a.


(ikus facsimilea, kolorezko bildumatxoan)

Batimendu txiki bakar bat ageri da. Bainaz berau *ez da Ermita*.

Esana dugu 45 urte lehenago izan zela erraustua. Arrastoak aurreko kapituluan ikertu ditugu, hain zuzen.

Baina hartara eramatzen zuten bide-zati batzuk bai; Ermitaren kokagunea Mendebaldetik inguratuz bezala.

Eta horietxek dira ondoko orrialdean zuri-beltzean aurkezten ditugunak.



Eta hona hemen 1858ko planoan topatu dugun etxola ñimiño horren salmentaren Agiria:

"En 26 de Marzo de 1872 manifiesta el Ingeniero Jefe de las Provincias Vascongadas, que en vista de la orden de la Dirección General de Obras Públicas, de 1. de Marzo de 1871, en que se previene que en la Isla de Santa Clara no haya más establecimientos que el faro, se quitaron el año último los restos de los pabellones, kioskos, y demás que existían, quedando solo una casita construída en 1850 por una sociedad que arrendó temporalmente la casa al entonces propietario de la Isla."

“Esta casa está próxima al faro, y la usa el torrero con aquiescencia de sus dueños; pero para cumplimiento de la orden citada, y comprendiendo el Ingeniero de Guipúzcoa la necesidad de su adquisición por el Departamento de Obras Públicas, para que sirva de desahogo al faro, tasó dicha casita en 200 pesetas.

“Proponiendo al representante de la Sociedad de Caza cedan la propiedad de la misma a la Dirección General de Obras Públicas por 175 pesetas; el cual contestó en carta de 18 de Marzo última, cuya copia remito, aceptando el precio fijado”

Madrid, 6 de Abril de 1872.

(Archivo Hist. Nac., F.C. 15223).

Nola lortu ote dudan pitxi hau? Paloma de Roda Lamsfus oiar-tzuarrari esker.

Handik gutxira baiespena etorri zen (Bilbon, 1872ko Uztailaren 18an):

“Los gastos de adquisición y escritura están satisfechos, y se incluyen en los de conservación del faro durante el pasado mes”.

Eta bide beretik, hona hemen Ihiztarien ikuspegia:

“En vista de lo que resulta en el expediente formado sobre la conveniencia de adquirir una caseta perteneciente a la Sociedad de Cazadores de la Isla da Santa Clara para el servicio del faro de la misma... ha tenido a bien disponer la adquisición de dicha casa en la cantidad de 175 pesetas.”

Fdo. Adolfo de Ibarrola, Ingeniero de la Provincia de Guipúzcoa; Orendain Notariaren aurrean.

D. Francisco Lafarga y Cabieces que hace algunos años formaron una compañía, bajo la denominación de *Sociedad de Cazadores de la Isla de Santa Clara...*


“y con tal motivo... construyeron en la cumbre de ella, y al S.O. del faro una caseta, de espacio rectangular...: con el lado mayor (N / S) tiene 6,00 m. de largo; y el menor (E / O) tiene 5,00 m. (= 30 metros superficiales)... y tiene 2 ventanas y una puerta en su fachada al mediodía”...

Eta beste aldetik hauek izan ziren sinatzaileak:

D. Juan Manuel de Moyúa, Marqués de Rocaverde

D. Manuel de Irazabal

D. Juan Queheille



1900 inguruko foto honek ehuneko ehunean baiesten du dokumentua. Txapala eta luzexka zen txabola; eta bai atea bai bi leiohak hortxe daude, Hegoaldera begira.

Mercader-en *mamelena* pare bat ere ikus daiteke; eta Uharteko nasak kutsu arkaikoa du. 1956en ondoko fotoak eta gaineko hau alderatuz berehalaxe errepresa daitekeenez.



Baina goazen gu, laburki bederen, *Uharte orokorraren* haria berrartzera.

1813tik 1863ra bitartean, erotik aldatu zuen Santa Klarak bere izakera.

1813 arteko urteetan, are bost mende luzetan ere (1244-1849), *Ermita* izan zen batimendu nagusia; bakarra ez izanik ere (lazareto, soldadu-gune, eta abar). *Erlilio kutsua* zen gailen.

Ermita, bestalde, San Bartolome-ko Kalonjesa Agustindarren jabegoa zenez, honek ere *Erlilio izaria* sendotzen zuen.

Baina Kalonjesak Astigarraga-ra aldatu ziren 1849ko Azaroaren 13an. Eta berauek atxekitzten zuten jabegoa, lurrena batez ere, kolo-ka gelditu zen. Eta *Uhartearena ere bai*, bide beretik.

Hala ere, *Faroaren eraikuntzak* ekarri zuen aldakuntzarik handiena.

Aurrerakoan Uharteak izari *itsastar hiritarra* hartu zuen.



Eta aldaketa mende-erdi horretan (1813-1863) geure burua kokatzeko, 1858ko planoa hartuko dugu abiapuntutzat.

Donostiako harresiak zutik zeuden oraindik. Nahiz 1863 hurbil egon.

Dokumentuen arabera, garbi zegoen Ermita eta Uhartearen kaxkoaren eremua, *Kalonjesen jabegoa* zirela.

Baina horretatik at, *Donostiako Udala* agertzen zen eskudun.

Hots, 1866 arte (eta data hau tinko atxeki behar da), *Kalonjesen jabegoa* dokumentatu egiten da.

Bestetik, *Faroa* 1864an piztu zen.



Elena Legorburu And.aren ikerlan miresgarriari esker (*El Monasterio de San Bartolomé de San Sebastián en Astigarraga*, Astigarraga-ko Udalak 1999an argitara emana; Rosa Ayerbe And. historilariaaren Zuzendaritzapean) orain dato zehatzak ditugu.

Liburua elebitan agertu da, L. Larrañaga, J. Ayestarán, E. Portugal itzultzale (XL + 712 orr.).

Eta lan mardulean egiazta daitekeenez (570) *Agustindar Kalonjesek* 1866an kobrazu zuten azkeneko aldiz Uharteari zegokion alogera: 100 errealkuarto.

Azkeneko maizterra José Eizmendi donostiarra izan zen. Baino Udal-Artxibategietan miaturik ere, gizon horren arrastorik ez dut aurkitu.

Uhartearen alogera-kontratua 1852ko Martxoaren 5an sinatu zuten bi parteek 10 urterako. Alegia, 1862-XII-31ra arte. Besteak beste, “zuhaitzak landatzeko eskubidea” aitortu zitzaison (Legorburu, 175).

Mendebetetsu beranduago sartu zen *Uhartea* Donostiaren Udalondasunetan.



Itzul gaitezen orain “Ihiztarien Txabola”ra. Data bertsutan eraiki baitzen, arestian irakurri dugunez.

Eta hiru jaun horiek *nor* ziren, eta *non* bizi ziren argitzeko, bi iturritara jo dugu:

- a) **Roca-Verde-tarrengana.** Alde honetatik, geure eskerrik egia-tienak eman behar dizkiogu jendaurrean **Esperanza Urretxa Rotaetxe Andereari**; hau baita gaur leinuaren tituluduna, eta inork baino hobeki ezagutzen baititu bere arbasoen gorabeherak. Hemen argitaratzen ditugun argazki batzuk, berak eskainirik eskuratu ditugu.
- b) **Donostiako Udal Errolda-ra.** Honen bitartez jakin dugu, bestekat Beste, Ihiztarien Txabolaren paperetan agertzen diren 3 jaun horiek, *nor* ziren, *nongoak* ziren, eta *non* bizi ziren.



Manuel Irazabal, berargarra (nahiz Donostian bizi), 1821 koa; eta Banku Zuzendaria.

Trinidad kaleko 28, 2.an bizi zen; Rocaverde-ren ondoan, beraz, Santa Maria elizatik bertago.

Bi seme-alaba zituen, biak donostiarak: Rosa eta Zelestino.

Juan Queheille, berriz, deituraz eta jatorriz *zuberotarra*, baina donostiarra izatez.

Donostian bizi zela besterik ez dakigu.

Eta ondoko lerroetan, xehekiago aipatuko dugu hiruon arteko ospetsuena: **Rocaverde-ko V. Markesa**.

Hernanin jaioa (1820-VI-17). Baino 1846an Donostiara aldatu; eta Abuztuaren 31 kaleko 20an kokatu zen, **Decidaria arrebarekin** (Hondarribia, 1823-VII-21).

3. eta 4. solairuak okupatu zituen (geroago 1.ra eta 2.ra jaitsiko bazen ere).

Emazteari **Casilda Altzaga Enparan** zeritzon.

Hantxe bizi ziren, bi gurasoekin, **Elvira** (1853) eta **Leonardo** (1856-IX-6), seme-alaba bakarrak.

Berau gero Donostia-ko Alkate izatekoa, pianista famatua izan zen (“Leo de Silka”); izenaren letrez halako metatesi bat eginez: LEOnardo de CASIL-da). Bere deitura osoaz: **Leonardo Moyua eta Altzaga** (VI. M. de R.V.)

Etxea Altzaga-tarren familiakoa zen; gero Moyua-tarren eskuetara pasa bazen ere.

Hain zuzen ere, 1813an Donostia erre zenean, eta Abuztuaren 31-ko portale bikotxiko etxeak erre ez zirenez, Altzaga-tarrek beren etxean Udaletxea jartzea proposatu zuten. Eta hantxe ipini zuten XIX. mendeko lehenengo urteetan.

Atxeki duen dotorezia urrutitik datorkio. Agian 1813ko sutean salbatu ziren 36 etxeetatik ederrena da. Orain lanetan... Bego! Eta Jainkoak begira gaitzala!



Datu gehiago nahi izanez gero, ikus:

Euskal Errria, XLII, 1900, 496-498.


Euskal Errria, XLIV, 1901, 478-479.

Gradua (jatorriz Vidaurre, gero erdal modari jarraikiz Roca-Verde bilakatua) aspaldikoa da, eta Bergaran dauka bere leinu etxea: Mou-Torre.


Politikoki *liberalak* ziren Rocaverde-tarrak

Foru-Prokuradore izan zen, baita Gipuzkoako Deputatu orokorra ere.

Pasaia-ko kaiaren eraikuntzan bultzatzalea izan zen, baita bertako Elkarteko Presidente ere.



Moyua-tarren harmarria
(ikus koloretan bilduma-
txoan)



"Ihiztarien Txabola"ren paperetan agertzen
den donostiar handikia.

Juan Manuel Moyua eta Adarraga (1820-1902)

Ikus xehetasun gehiago eta Alejandrino Iruretaren multzo-erretratua I. Eraskinean eta kolorezko bildumatxoan.



Rocaverde-tarren ikur heraldikoa (2003ko fotoa), atariko burdin-atean ageri da oraindik ere. (Donostiako Abuztuaren 31ko kaleko 20an).

Etxe hau, jadanik esana dugunez, 1813ko sutean erre ez ziren bakarretakoa da.



VII

FAROAREN BILA

Argazkia datatzen erraza da.

Satrustegi-tarren *Toki-Eder* gaztelu-jauregia eraikita dago.

Beraz: 1883en ondokoa da.

Ondarreta-ko gartzela, berriz, 1888-koa, oraindik ez da agiri.
Baina eraiki aurreko txabolak, bai, malkorpean.

Beraz: $1883 < t < 1888$



Fototeka: 143.21 (6470.1) Data: 1885 ingurukoa


Uharteko Faroa eraikia da; baina dorrezainaren etxeak pisu bakarra du; eta ez bi, azken urte hauetan bezala.

Berrikus 1862ko projektua aurreko orrialdeetan. Edo 1878ko planoan duen eitea.

Txubilloko dorrea, jakina, benetako *Farola* izan zen garaiko itxura du oraindik. Gero erantsi ziren aldaketak gabe.

“Mamelena” horrek (*Mercader-en ontzi-multzokoa*) areago markatzen du sasoia.

Uharteko mini-nasa zaharraren arrastorik ere ez da garbi ikusten.



Sánchez Terry-ren plano-tik hartua (1878). Itsas-argiaren gunea +53,00 heinean dago.

Eta eraiki ondoren 14 urte baizik joanak ez zirelarik, planta bakarra du.


Faroaren kokapena (saihetsetikakoista)

Argi zuria. Irispena: 9 milia.

1864an pisu bakarra zeukan dorretxeak.

Baina 1911-1912an bigarrena erantsi zioten.





Faros Españoles del Océano
(Miguel Ángel Sánchez Terry, M.O.P. Madrid, 1987) 23, eta 24. orr.

Garbi ageri denez, Iparraldeko lata erpina leku arriskutsua ere bada. Hegoaldekoa, aldiz, goxoagoa.

Eta horrela, 1956ko Projektuaren *Memorian*, hau irakurtzen dugu: “La parte meridional de la Isla es uno de los lugares más abrigados de la Concha”.

Baita xehetasun argigarri hau lehenagoko nasa zaharrari buruz: “hay un dique de atraque que apenas se descubre de la arena en las bajamaras vivas”.


Inkantean eskaini ziren lanek presupostu hau izan zuten: 122.321,75 errial.

Eta Faroa 1864ko Irailaren 15an hasi zen ibiltzen (*Igeldo-koa* baino 9 urte beranduago).

Teknikoki *seigarren mailakoa* da. Eta piztu zenean *Lepaute* etxearen tresna katodioptriko bat zeraman (187,5 mm.koa). Linterna oktogonalala zeukan, eta olioz elikatzen zen.

1883an petrolioaz eta parafinaz ari zen *Maris* bat ezarri zioten.

Eta 1916an, Abuztuaren 23an, berriro aldatu zuten argiketa sis tema, merkurio gaineko upel jirakorra ipiniz.



Uhartearren atzeko Bantxa beti izan da donostiar marinelen mila kezkaren iturri, eta makina bat hondorapen eragile ere bai. Plano honetan zehazki azaltzen zaie pilotuei Donostiarako hurbilketa nondik egin behar duten.



1862: Kostaldea, garaiko Farolen xehetasunekin, Faroaren Projektuan.
Manuel Estibaus Ing. - Gasteiz, 1862-VI-10.

PROYECTO DE UN FARO

de

6º Orden para la isla de S.^a Clara en S.^a Sebastian.

Documento número. 3º

Pliego de condiciones facultativas.

Archivos 37.

obligación del *El obligación de contratista y contar cuanta sea
contratista en necesaria para la buena construcción y aspecto del
caso en cada obra, aun cuando no se trate expresamente
sobre términos estipulados en estas condiciones, siempre que
tanto en condiciones separadas de su espíritu o recta interpretación lo
sugiere,* disponga por escrito el Ingeniero encargado de la obra

Vitoria 10 de Junio de 1862

Al Ingeniero Jefe


M. Estibaus



Aprobado por el Oficio de 10 de junio de 1862


Thomson





Faroaren aurrekaldea gaur (Urgull ozta-ozta somatzen da zuhaitz-adarretatik harat)

Uharteko arrokak itsasoraino jaitsita, *Martinako-zulua* eta *Arrokazabala* izango ditugu aurrez aurre, eta gure atzean (eta gainean) Faroa dugularik.





Faroak hondartzetako kutsua hartzen du udagaraien.

Eskuin aldean ikusten dugun horma Hegoaldera begira dago. Eta arku borobileko atea, bi leihoen arteko, Faro-Dorrerako sarrera nagusia zen.

Ilunpean, jendearen atzean, horma bat ageri. Antzinako Ermitaren basamenduari Ekialdeko muga ezartzen ziona.


*Santa Klara-ko Faro-Etxea gaur (1997), Ekialdetik ikusia.
Jokin Leniz marrazkilari - arkitektoak plumillaz eskainia.*





Faroa 1946an (Fototeca, 372-2211 (1))

Hodia ikusita, aisa somatzen da gaineko pozadera; oraindik ere 1946an, Iturri Zaharrera ez joatekotan, *egokia esan dezagun.*



Hemen kolorerik gabe eskaintzen ditugun bi foto hauetan, garbiki ikus daitezke, goikoari dagokionez, itsasertzeko nasa, eta Iparraldetik Uharta inguratuz igotzen den bideska.

Iturri Zaharra ere hortxe dago, beheranzko bideskaren bukaeran.


Goiko Taberna ozta somatzen da zuhaitz adarren artean.

Faroaz, berriz, arreta handiz begiratuz, fokoaren muturra errepara daiteke.

Santa Klara-ko Plata, aldiz, aparraz nabarmendua, aisa ikus dai-teke.

Hemen beherean, berriz, goranzko aldapa nagusia, eguerdi irian.

Hortik aurrera joanda, beraz, Farora iritsiko gara.




VIII
ARRIBIZKETA



Arribizketa-ko harraldea eguneko bi une desberdinetan (1950). *Fototeka* lagun.



Lehendabiziko projektua (S. Bort)



Sánchez Bort-en projektuan (1774), barraderaren koka-gunea hau zen.

(Planoa 1774-VIII- 25koa da).

Uharteko Ermita gain-gainean agertzen da.

Eta obren tramitazioa eta finantzaketa Donostia-ko *Kontsulatuak* bideratu zituen.

Donostiako *Kontsulatu* 1682an sortu zen.

Baina kaian gaur ikus dezakeguna (baita X. Kap. ere) 1750 inguru an eraiki zen. Eta 1766an Donostiako Ordenantzetan aipatzen da.

Besterik ere sustatu zuen *Kontsulatuak*.

Arrobi-ko Farola Zaharra, adibidez; gaur egun *Torreón de Igueldo* birbataiatua

Hitz batez, *Harribizketa*-ko lehenengo barradera *Kontsulatuak* bultzatu zuen.

Baina beste lan garrantzitsu batzuk ahantzi egin bide dira.

Gaur Donostia-ko kaian dagoen batimendua (ik. X. Kap.), *Itsas Museo* bihurtua (1991-V-23), *Kontsulatuaren Dorretxea* izan zen.

1813ko erreketan erre ez zenez gero, Gipuzkoako hiriburuan salbatu zen etxerik interesgarrienetakoa da agian.

Oraindik ere hor dagoen kanpaina, etxaurrean ageri gure fotoetan, hitz hauek irakur daitezke: "Soi de el noble Consulado de esta ciudad. 1799".

Besteak beste, eta arriskutan egon zitezkeen txalupei laguntza emateaz gain, salbamendurako Txalupa Aundia gordetzen zuen bertan; baita tresnategia ere: kableak, kalabroteak, soka, aingura-sail oso bat. Eta bertan bizi zen "*Teniente*" izenekoa.

Ondoko urteetan, Uhartearekiko loturari eusteko erabiltzen zen ontziaren gordailua izan zen.

Baina hau horrela izanik ere, Konsulatuak beste aztarna garantzistu bat utzi zigun: **Arribizketa-ko Barradera**. Oraindik gaur egun hondatuta bada ere, hortxe dago, ondoko orrialdeetako argazkietan ikusiko dugunez.



Lanak 1821-ko Urtatsez hasi ziren; eta 1821-V-5ean hetsi nahi zuten tartearen erditsuraino iritsi ziren. Baino Konsulatu garai hartan diruz urri zebilela-ta, geldi erazi egin zituen hasitako lanak Eta barradera ez zen burutu.

Osoki hetsiz gero "Kontxako hondarra Ondarreta aldera joango zela-ta, bertan bere utzi ziren obrak. Eta barradera ez zen burutu.

Diru-eskasiarena, dena dela, ez bide zen arrazoin bakarra.

Beldurra ere bazegoen bazterretan: "Kontxako hondarra Ondarreta aldera joango zela".

Eta, bata dela bestea dela, 1822ko Urtarrilaren 26an, Projektua osotara alde batera uztea erabaki zuen Konsulatuak.

Santa Klara... Uharte egongo zen. Eskapada ederra egin genuen!

Eta zapuztutako barradera, maingu, moztua, hortxe ikusten dugu donostiarrok geure bizian barrena.



Hala ere gure arbasoak loriaturik bide zeuden Arribizketa hesteko ideiarekin.

1862an, Donostiako Alkate zelarik, Bulebarreko Harresi zaharra eraatxi zuen berberak, onarpen ofiziala lortu zuen zazpi urtez borro-

ka eginda barrade-rako lanei berriro eusteko (1869ko Apirilaren 7an).

Baina lanak ez ziren hasi. Berriro Uhartea garaile.

43 urte beranduago (belaunaldi bakoitzak bere saiotxoa egin behar izan balu bezala), berriro **Arribizketa** itxi-bai / itxi-ez hartan:

“Este proyecto –*barradera*, alegia– además de la comodidad y expansión... ofrecería al público (zion 1912ko projektuak) que se trasladase por tierra a *Santa Clara*, lugar pintoresco, ameno, y también económico, y resultaría altamente beneficioso para la incomparable playa de la Concha; pues *cerrada aquella parte* desaparecerían las corrientes submarinas que arrastran las piedras desprendidas de las canteras, y que van a la playa”.

“Areago –zion Txostenak– Barradera eginez gero, beronek isolatuko bailuke gaur egun kolkoan bere ur kiratsak isurtzen dituen erreka (*Konporta*-koak, alegia). Beronek, gartzela atzetik pasa ondoren, zikinkaeria gehiago biltzen baitu”.

1916an, hala ere, ezer ez zen aldatua barraderaren inguruan.

Hori dela-ta, 1916ko Maiatzaren 11an, Agote zinegotziaren proposamenaren bidetik, **Luis Balanzat** ingeniairiak projektu bat zehaztu zuen (ikus honi buruzko planoa ondoko orrialdeetan).

Irailaren 11an projektua onartu zen. Eta berehala **Inziarte** Donostiarra Alkateak (Urriaren 4an) dokumentu mordo bat bidali zuen Fomento Ministeritzara (Madrilera. jakina) helburu honekin: **Igeldo eta Santa Klara-ren arteko hesketa-murrua** egiteko baimena azkartzeeko.

Eta lanak nola egin behar ziren, epeen barruan, xehe-xehe azaldu zuen.



Gauzak labainago jartzekotan, itxuraz, Brunet donostiar handikia ere hestearen alde paratu zen.


Eta oraingoan, benetan, barradera gauzatuko zela zirudien.

Lerro hauek idazten dituenaren aitonak ere (Federico Alvarez González antigutar zinegotzia) hestearen alde zegoen.

Eta Serapio Mujika jakintsuak berak ere, erabat ados, hitz hauek idatzi zituen: *En lancha, la Isla de Santa Clara es casi el único lugar que se visita; no hay en ella otros atractivos que el faro y las vistas bellísimas. Dentro de algún tiempo se podrá ir a pie*

desde las estribaciones de Igeldo a la Isla. Pues se trata de construir un paseo, que pueda ser atravesado siempre que no esté muy alta la marea (Geogr. País Vasco-Navarro, 1916; Guipúzcoa, 687)

Balanzat-en Projektua (1916)



Garbi azaltzen da gartzela dela, 1889az geroztik, eta topografikoki gutxienez, inguru hartako ardatza (bere osoan hartzen bada).


Arribizketa-ko harraldea hor dago.

Baina antigutarrok betidanik dakigunez, “busti” gabe (are metro batzutan igeri egin gabe ere) ez dagoela Uhartera iristerik. Tarte txikiak, bai. Bain Santa Klara... Uhartea da.

(Ohar bat: bai planotxo hau, eta bai kapitulo honetan eskaintzen diren xehetasun asko, Rikardo de Izagirre-ren liburu honetatik hartuak direla: “*Estudios acerca de la Bahía de San Sebastián*”, 1933, Pasaiar).



Beste plano bat Balanzat-en Projektuaz (1917).



Hona hemen Udal-Artxibategian aurkitu dugun plano bat (1917koa, eta Balanzat-ek berak sinatua (nahiz sekula ez modu horretara burutua).

Polemika handia sortu zen jadanik; eta hondartzak kaltetzeko izuak, geldi arazi zituen asmoak oro.

Eta Santa Klarak ez zuen bere “uhartetasuna” galdu, arestian erre pikatu dugunez.

Segida harrigarria izan zen. Instituzio *guztiekin* eman zuten beren ontzakoa. Behin eta berriz halere, erantzuna berbera izan zen: projektua gelditzea... eta kitto.


1925an beste bultzada bat eman zitzaien planari; baina dena geldi.

Hitz batez. *Arribizketan* barradera bakar bat eraiki da: orain dela bi mende *Kontsulatuak* gauzatu zuena.




Aberatsen eta udatiarren Concha hondarrik gabe uzteko beldurra, hamaika aldiz zapuztu zituen txosten eta argudio guztiak.

Kontsulatuaren “dique” delakoak, artean, 182 urtez eutsi die itsasoaren eraso guztiei.


Arribizketa-ko barradera gaur (2003)

Kontsulatuak 1821an burutu zuen obrak ez zuen *Arribizketa-ko* tartearen erdia ere iritsi. Hots, zenbait dokumentutan, *obraren iraupenerako*, teknikariek *beharrezko* elementu gisa aipatzen den “haitza”, at utzi zuten, Iparraldean. Segidako fotoan ongi ikus daitekeenez.

Beste projektu batzuk




Ikus daitekeenez, barraderaren kokalekua ez da, 1887an orografiak behartuta, proposatu zenetik oso hastandu.



Donostiako Fototeka-tik lortu dugun foto honetan, Arribizketako harraldea ageri da *1894 inguruau*, itsasbeheran. Tartexka horiek barradera baten bidez hestea, zalantzarak uzten ez duen soluzioa dirudi.

Itxuraz *Uharteak eta Arrobik* ia-ia ikutzen baitute elkar.

Arribizketa (2003)



Arribizketa, harrobi.

Arribizketako borroka ez da atzokoa arlo honetan.

Donostia hiriak harri behar zuen bere etxegintzarentzat.

Non hartuko? Arribizketako bi aldeetan.

Igeldokoa, Tennisaren gainekoa, Arruegi izenekoa, oso aspaldiko dokumentuetan aipatzen da: *Se prohíbe sacar piedra por la parte de Arruegi, bajo pena de 30 días de cárcel... por el gran desorden ocasionado.*

Eta gauza bera Uhartearen aldetik: *que no se saque piedra de la dicha Isla de Santa Clara por ninguna persona; sino de las otras partes detrás de la puente de Santa Catalina* (1583ko Irailaren 23).



IX

UHARTEKO DORREZAINEN PATU HITSA

Aurrera baino lehenago, hobe du irakurleak VII. Kapituluko argazkia berrikustea.

Eta saia gaitezen orain dorrezainen berri ematen.

Informazio iturriak

Errolda

Informazio-iturri nagusietakoak, *Errolda* da; eta beronen Artxibategia Donostia-ko Udaletxean dago. Ijentea kaletik sartu, eta beheko solairuan.

Baina alde batetik *kaleka* datozen egoiliarren deiturak. Eta bestetik, sailkapen horren arabera sortutako multzoetan, hurrenkeratik *alfabetikoan* agertzen dira.

Dorrezainen zertzelada pertsonalak aurkitzea lantsu gertatzen da.

Liburuki guzti-guztiak ez dira beti eskuragarri. Eta, labur esanda, dorrezainen historia berreraikitzea, are maila apaletan ere, ez da erraza.

Inbentarioak

Inbentario hauen kaierak, Donostia-ko Aquarium-ean daude. Kaian.


Uharteko dorrezainek berek idatzita daude. Eta den-denak hutsarterik gabe egon ez arren, xehetasun argitsu asko ematen dute. Bai dorrezainak nor ziren. Baita xehetasunetan eta eguneroko bizi-moduan Uhartearen zertan ari ziren ulertzeko.

Txosten horiek, dena dela, ez dira publikoak.

Eta nik neuk Zaragueta jaunaren bitartekaritza gabe, ez nituen ezagutuko.

2001. urtean Lehendakaritzak ematen zion sarbidea baliatuz lortu nuen gordailu pribatueta sarrera, eta hemen argitaratzen ditudan datoak.

Aquarium-aren kokagunea (2003)



Kai guztia gurutzatu ondoren, eskailera bat dago eskuinetik, fotoan ikus daitekeenez.

Itsas Museoa 1908an sortu zen. Eta zenbait lekutan kokaturik egon ondoren, 1925 / 1928an eraiki zuen begi aurrean ikusten dugun etxea. Eta geroztik hortxe dago.

Eskailera igota *Pasealeku Berria* hasten da.



Dorreainen gorabeheretara itzulita, zenbait aldiz ezkontideetako bat euskal hiztuna izan arren, bikotea (edo familia osoa, gaur ikusten dugunaren bidetik) erdalduna zen.

Erdararen aldeko joera hau azkartu egin da azkeneko urteetan, Uharteak egondako dorrezainen zertzeladak jakitean ulertuko dugunez.

Uharteko Dorretxea gune erdalduna egon da, elebakarra. Baita Donostia arrantzaleen mundua euskaldun *petoa* zen urteetan ere.

Uharta, alde honetatik, arrotz izan zaio Donostiari.

Bi izakera mota egon dira.

Lehorreko *joxemaritarra*, kaskoin odola zainetan, alaia izan da, festazalea (*Festara!* kanta ospetsuan aitortzen den bezala); adar jotzailea, danborradazalea.

Uharteko dorrezaina, aldiz, eta ingurukoak, jende gogorra izan da, erosotasunik gabea, isolamenduan zaildua eta zakarra, mutur-beltza. Eta, azken funtsean, antzinako *ermitauen ezpalekoa*.



Dorrezain *guztien* zerrenda osatzea guztiz zaila izanik (ezinezkoa, esango nuke), hemen *zenbait* dorrezainen berri emango dugu.

Beste alorretako gora-beherak besteri utziz, eta guk hemen ikuspegi *sozio-linguistikoa* arreta-gune hautatuz, hau azalduko dugu: nola mintzo ziren dorrezainak? zein hizkuntzaz?

1902ko Erroldan, senar-emazte hauek topatu ditugu Uharteko biztanle: Agustín Ricarte + Eudivigis Garrido; beren 8 seme-alabekin. Santa Klara ez zegoen hutsik garai hartan. Ricarte-tarrak 1896an iritsi ziren Donostiara.

Eta senarraren deiturak idaroki dezakeenaren aurka, Eudivigis hura Toledo alaba zenez, Dorretxeko hamar lagunak erdara hutsez. Gaztelaniaz, alegia. Uharteak elebakartasuna nagusi.

1905an, Cenón Acarreta Zubiri zeritzona topatu dugu. Nafartarra, dirudinez. Baino jakin ez dakigu. 1906ko inventarioa sinatu zuen. Eta gerora Igeldoko Farora aldatu zen.

1917ko Erroldan, Juan Guillermo Porras + Concepción Rodríguez topatu ditugu. Beren 3 seme-alabekin bizi ziren Uharteak. Biok ziren Malaga-tarrak. Beraz etxe hartan zer entzuten ote zen irakurleak asmatuko du.

1925an, Francisco Alonso Herrera + Saturnina Garraleta Ansotegui, beren 3 seme-alabekin. Senarra Logroño-koa izanik, eta emaztea Eltziego-koa (arabar Errioxa-koa), iruzkin jakintsurik ez da egin behar.

1933an ez bide zen Uhartearen inor bizi (Errolda sinestekotan). Baino gakoa hau izan daiteke: 1933an hil zela F. Alonso dorrezaina. Alegia, 1925an aurkitu duguna.

1934an, Rosendo Granados Estévez aurkitu dugu artxibategian. Granada-koa zen, eta donado bere 30 urteetan.

Gerra amaitzean, Bonachera izeneko bat bide zegoen dorrezain. Noiztanik noiz arte? Ez dakigu.

1943an Guillermo Ibarra agertzen da.


Eta 1944ko Urtarrilaren 1an Jose Manuel Andoin Torralba koka-
tu zen Santa Klarako dorrezain. Maria izeneko bere amarekin etorri
zen. Biak Santandertarrak ziren.

Eta hau Uharteko azken dorrezaina izango zenez, arreta bereziaz
gogoraziko dugu orrialde hauetan.

Eta hor duzue, bere lan-jazkeran etorr Rita bi urtera (1946)

Fotoa Donostiako *Fototekan* dago (San Martin kalean); eta erre-
pera hau darama: 372-2210(2).

Faroa 1946 (Fototeka, 372-2212 (2))



Xehetasun bitxi bat: 1945an, Uharteko *torreroak* 7.200 peseta
urtean irabazten zuela. Ordukoak, noski.

Berak sinatutako *inventarioan* utzi zituen xehetasun batzuk, oso
interesgarriak dira. (1957-X-19).

Dorretxeaz, bestalde, hau dio: "está en malas condiciones de conservación". Bizilekuaz ari da: oheak, aulkia, dena, zaharkituta.

Baina alderdi teknikotik ongi omen zegoen. Eta bera Uhartera iritsi baino lehenago (1943) erositako petrolioak *Aladino* sistemari, egoki zeritzon Andoinek.

Egoera politikoaren eraginak ere nabarmenak ziren Uhartearen.

Inginadorearen gelan (*Despacho del Ingeniero*, zehazki Inventarioe- tan), adibidez, horman dagoen testu ofiziala aldatuz doa. 1934, 1935, 1936 urteetan, *Constitución de la República Española* irakur daiteke.


Baina 1942 eta 1943 urteetan zintzilik hau dago: "un cuadro con la foto del Generalísimo y una bandera nacional".

Andoin bestalde, tiratzaile bikaina, Manolo adiskideen artean, México-ko Olinpiadetan 1968an egondakoa, untxien *etsai amorratua zen*. Eta 1972z geroztik, batez ere, oso ugaldu zirenez, tiro egiten zien Dorretxeko leihotatik; eginkizun honetan Mariak (amak, alegia, gogoz laguntzen ziolarik).

Azkeneko xehetasun mamitsu hau: ur bila *Iturri Zaharrera* jaistea arriskugarria eta deserosoa izanik, Faroaren terrazan urandel bat jarri zuten, eta esku-ponpa erabiliz ura igotzen zuten... *Kanpinlari* iraunkorra Uharteko!

Baina goazen gu aurrera gure kondairan.

Donostia-ko Fototekari esker (eta Amaia Zabalo Agirre Anderearen laguntzaz), beste 2 argazki hauek eskaintzen dizkiogu irakurleari:



Batetik, 372-2210(3) erreferentziako hau. Leku berean Andoin bere bi lagun edo senide horiekin; bisitan etorriak segurki, fotoa 1946koa delako. Biak ezezagunak guretzat. Eta hirukotea Faroaren linternaren ondoan

Eta bestetik, handik 12 bat urtera, Andoin Donostiako kaian. Data zehatzaz ezin eman.

Bigoteak pittin bat desbideratzen gaitu. Bainaz “bera da”. Santa Klara-ko beteranoek ziplo berretsi dutenez.



Fototeka: 344-8 (50880-1)

Andoinen patu hitsak gure *barne muiñak* argitzen ditu, Orixeren hitzak ebatsiz. Argitu, bai. Eta dardarazi ere bai.

Igeldo-ko dorretxe honetan amaitu zituen Andoinek bere egunak.

Eta hona hemen Igeldoko Faro hori, 1997an Jokin Lenizek ikusi zuen bezala.



Igeldoko Faroa (1997). Jokin Leniz-ek marraztua

Arraunlari laguntzaile bat bazuen Andoinek. Pipo Ikatzategi zeritzon. Kale-ekortzailea zen lanbidez (kale-garbitzailea Donostiako kaian).

Zaharrak, eta ez horren zaharrak, ongi gogoratzen dira bataz eta besteaz.

Faroa automatiko jarri zuten egunetik, garbi agertu zen etorkizuna: *Santa Klara-ko dorretxea uztea (1962)*.

Eta ama eta semea Igeldoko Dorretxera aldatzea ez zen oso luzatu (1968-1970).



Aurrerakoan, pentsa zitekeenez, eta edonork aldez aurretik iragar, besterik izango bide zen ama-semearen bizi-modua kokaleku zoragarri horretan.

undura berrerosiak!

Muitza-tik Matxitxako-raino aurrean. Isolamendu latzari agur. Eta Igeldo-ko Faroa-ko errepidea atarian izateaz gain, hantxe *Monte Igueldo*-ko jolas-lekuak, karrusela, *bai misteriotsua*, eta goiko garrasiak, eta makinerihotsak, eta abar, bertan: metro batzuk igo, eta ina.

Igeldoko Hotel dotorea ere, baita Jatetxe famatua, mila ospakettaren biltoki, eskuarrean.

Agur, hitz batez, *Santa Klara-ko Penalari*. Bizikera leunagoa egiteko parada Andoin-darrentzat.

Hots, bospasei urtez besterik ez zuen iraun Igeldo-ko egonaldiak. Erosotasun berri hura, galgarri gertatu.

Bai ambaieko semea, elkarren ondoan hil ziren. Biak 1974 urtean.

Ama aurrenik: 1974ko Maiatzaren 29an.

Andoin semea mutilzarra, umezurtz gertatu zen, eta arrotz. Eta ama gabeko bakardade hura ez zuen menderatu ahal izan.

Eta 1974ko Azaroaren 29an, urte erdira “jour pour jour”, hil egin zen.

Zehazkiago, bere burua hil zuen; tiro txapelketetan loria eman zion eskopeta berbera erabiliz.



Suizidio hura izkutatzen saiatu zen Franco-ren Gobernua; eta oso bereziki Donostian agintea zeukaten gobernadoreak eta enparauek. Ez dezagun ahantz 1973ko Eguberriaren gertatu zela Carrero Blanco Almirantearen kontrako atentatua. Eta ETA hilketaren erantzule eginda, eta Hego Euskal Herrian egoera poliziala zegoela arras: *Estado de Excepción* esan ohi zitzaison.

Enkas, eta Igeldoko gertakaria susmagarri izan zitekeelakoan, izkutatzen saiatu zen prentsa ofiziala. Bainak egiak bere bidea egin zuen.

Eta Uhartea maite dutenek Andoainen tragedia ezagutzeko esku-bidea dutela iruditu zait.



X

“UGARTEKO ADISKIDEAK”

Lantegi, are sofrikario leku izandako dorretxea, atseden eta oportoki bihurtu zaigu; aulki eta chaise-longue horiek (VII. Kap.) erakutsi dutenez. *Dorrezaisten bizimodu garratzetik*, arrats geldo eta haitzarteko txoko leunetara igaro gara. Ez dago zalan-tzarik.

Baina aldaketa funtsezko horren urratsak ulertzeko, *Faroetxeko horniduren arazoak* bana-bana aztertzea izan daiteke argibiderik onena, zeharka baizik argituko ez badu ere.

— Eta has gaitezen **uraren alorreko kontuak arakatzen**.

Eta, hasteko, *XVIII. mendean* eraiki (edo berreraiki) tako *Iturri Zaharretik* ekingo diogu aztergaiari (V. Kap.)

- a) Bertaraino iristeko eskailerera zarpaila, erpina da oso; eta eskaileraburua goitik daraman bidexka hertsia ere, labain egoten da, irristakor. Eta heldu-lekurik ez duenez, arriskutsu.
- b) Zer esanik ez, noski, besotan suila edo pegarra harturik, lano, gandu eta kresal eguratsa zeharkatuz igo eta jaitsi egin behar baldin bada.
- c) Kontrako beste kontu hau: Iturria Mendebaldera begira dagoela, *Arribizketa*-ko arroketan itsaso nahasian aparra gora hedatzen den eskualde batean. Eta umeltasuna oraindik bustiagoa inguruko putzuak, ur-berroak eta istilak ugaltzen dituzten zokondoetan.

Dorretxetik behera ur bila joatea ez zen goxo.

Arribizketako arrokak zero goibelez



Errazagoa zen baserrietako sistema baliatuz, *euria bilduz, pozadera* bat goian egitea.

Eta jadanik esan dugunez, hauxe egin zuten dorrezainek. Erabilitako zorrotenak oraindik hor daude, agirian, dorretxeko horma-txokoetako argazkietan ikus daitekeenez.

XX. mendean ere, Ermitaren garaietako ermitauak bezalatsu bizi ziren dorrezainek eta berauen familiak urari dagokionez.

— Antzeko eragozpenak janariak eskuratzeko.

Lurlantzak Uhartean ezer gutxi lortzerik zegoenez (eta areago Andoin 1944an etortzean, zegoen baratza apurra puskatu zuelarik), *kaitik*, hiritik ekar zitekeenaren menpe bizi ziren Faroko egoiliarrak.

Baina, jakina, itsaso nahasian eta sagailoz, ezta hori ere.

Pipo Ikatzagasti-ri (Andoin-en laguntzaile ofiziala, jadanik idatzi dugunez) gertatua zitzaison askotan. Txalupa nola-hala Uharteko nasara lotu, eta... *airez* bota behar izatea dorrezainaren oturuntza.

Bidenabar, baina ezin ahantzia, Pipo-ren amaiera tragikoa. Bere txalupako bi arraunek, bularraren gainean elkar gurutzaturik, gizarra joa askatu ezin, eta ito egin baitzen.

— Eskola-ri buruz, berriz, zer esango?

Inbentarioetan xeheki irakurtzen dugu: eskolara joan ezinik, dorrezainaren umeak *analphabetismora* kondenaturik zeudela.

Uharteko bizi-baldintza hauek, eta antzeko beste hamaika ere kolore berekoak, ez da harritzekoaskok *presondegia* gisa ikusi izana.

— Erredizen mailak ere, gauza bera idarokitzet du: dorrezaina ez zen oparatasunean bizi. Eta ez gutxiagorik ere. Zerbait aipatu dugu aurreko kapituluau.

1944-I-14 an Jose Manuel Andoin dorretxeaz jabetzerakoan, artilezko 4 koltxoi eta lastaira bat, *berriak*, eraman zituen. (*Maria Torralbo* ama ere semearekin joan zen 1944an).

Errediza *txarrak* zeudela, behin eta berriz errepikatzen da *Inbentarioan*. Baita *Andoin*-ek berak ere bere eskuz idatzita.

Porras dorrezainak, bere aldetik, eta bere Inbentario-atala idaztean, hau zion (1925-VII-1an):” burdinazko bi oheak, *oso hein txarean* daude”.



Ikusia dugu gizona. Azter dezagun famili giroa.

Andoin Santander-tarra zen (Santoña; 1914-IV-29). Ama ere sorleku berekoa (Escalante; 1894-IV-29). Aita, berriz, **Policarpio Andoin**, goiz hil bide zen. 1945ko Erroldan (Donostiara etortzean) aitaren arrastorik ez baita agertzen. Badirudi ez zela inoiz Uhartean bizi izan.

Artxibategian *Maria Torralvo* (alargundua) *famili-buru* agertzen da n.

Batek edo bestek, ausaz, kontestu horretan, **amarekiko Manolo** halako “Elektra”ren konplexuak ikutua ote zegoen proposa lezake.

Baina jadanik esan dudanez, ni ez naiz uhar horietan murgilduko.



Bere ñimiñoan ere, bere uhartetasuna galdu ez den ber... “*it's different*”.

“*Toutes distances gardées*”, eta ni neu ere “uharte-eri” betean kolpatu-rik, Santa Klarak ekarri dizkit gogora munduan barrena gal-

duta dauden uharteak eta itsasargiak. Islak eta farolak, esango digu euskararen tradizioari estu eutsi nahi dionak. Uhartea, funtsean, ibai erdian dagoen “ur-artekoa” baita. Eta Zumaiako Paola toponimoa farolaren alde mintzo baita (Gero xehekiago).

Baina bego hori; aurrerago puntu hau xehekiago agertuko dela-ko.

Eta eldarnio eroan, Norvegia-ko “errebelatutako arrantzaleak” gogoratu zaizkit. Eta *izpazter* urrunetan, argitxo xume bat ikusi dut, olatuen gainetik ñir-ñirkari, faro bat... eta gero beste bost, edo hamar, eta Lofoten uharteria, eta Spitzberg, eta foka taldeak, jelaren gainean etzanda...

Eta *Islas de los Evangelistas* direlakoez oroitu naiz, zinema-erreportaia ahazkaitz hartan ezagutuak; Txile Hegoaldean, Magallanes lurrartean

Eta haratago *Isla de la Desolación* delakoa. Uharte haitzu, zakar, gupidagabea. 1619an Nocedal nabigatzaileak horrela bataiatua... Hots, hauetan ere badaude dorrezain harrigarriak, bakardade hotzean.

Baina urrutiegi eraman gaitu ameskaitzak.

Eta guk Santa Klara-ra behar dugu. Bego horretan irudimenezko bidaia hori. Eta barka!



Baina gu... geurera...

Gaurko Uhartearen sorrera

Guk ezagutzen dugun Uhartea, jolas-toki, atseden-leku, askatasun-gordailu, hamaika gazte eta ameslariren bazter kuttuna, 1956an sortu zen.

Mahaiak, ur laisterreko iturriak eta askak, bi tabernak, dutxak (behekoa aurrena), parasolak, dena bideratu zen 1956ko udan.

Eta sustatzaile nagusiak izen ezaguna du. “*Santa Klara Ugarteko Adiskideak Elkartea*”.

Izen batzuk ematea derrigorrezkoa da:

Joxe Mari Iturri, Uharteko “lehenengo Alkatea”;

Imanol Berakoetxea, sustatzaile nekagaitza aspaldiko garaietan;

Jose Anjel Anabitarte, baratzaina eta artxibo bizia; eta luzaroan “Alkate” izana;

Antton Uzkudun, liburu honen prestaerakoan laguntzaile fin;

Agustin Arana, erreenteriarra, azkeneko urte hauetan Elkartearen buruzagi “faktikoa”, eta gaur egun “Adiskideen” Lehendakaria;


Juan Mari Garzia Etxeberria, “putzu” (= itsaso)aren zale porrokatua, eta lanbidez, Anabitarte bezala, baratzaina.

Juan Mari, hau gure artean, *maître* aparta da (sukaldari bikaina, alegia). Eta camping trapazera exkax eta ziztrin bat lagun, edozein jatetxetako baino jaki hobea prestatu izan dizkigu P1 zabalunean. *Ermita egon zen* talaiaren Hegoaldean.

Eta abar luze bat.



Txalupen txartela (2001)



Elkartearren zigilua (2002)

Laburki bederen zerrendatuko dut “Adiskideen” uulta:

— Hiriko ura ekartzekotan *burdinazko hodia* bat ezarri zen. Baino horrela ekarritako urak ez zituen goiko instalazioak iristen; eta, horrez gain, itsasoak birrindu zuen.

— Bigarren sarea *plastikoz* egin zen; eta honek bai, honek Dorretxeraino helerazten zuen ura.

— Itsasoaren ertzetik inguratzen duen *ibilibidea* ere, zementoz txukundu zuen Hego-aldetik.



Santa Klara Egunaren inguruan, Abuztuaren 11, jaiak antolatzen dira aspaldi honetan, bertsolariak eta guzti; *Euskal Herrian Euskaraz* taldearen laguntzaz.

Hona hemen, adibidez, entzundako hau, bere hartantxe:

“Toki txiki polit atsegina,
azti eder bat dirudizu
egazti eder bat dirudizu
Kontxa politaren sarreran.

Ur bisiak diranean, berriz,
polita da zu ikustea,
olatu eta aparren erdian
bai ametsgarria zerala.

Zure tontorrean gauetan dezun argiak,
itxas gizonarentzat itxaropenezko izpia,
hori ikusi ezkero nabaitzen du pakea
gertuan bai dago Donostia.

Ekaitz gogorrak maiz izaten dira,
arrantzaleak bizi dira borroka larrian,
eta berak eskeintzen dizuena
da kai-pakea, lasaitasuna itz batean

Santa Klara ezaten diote
egon zalako lekaimearen etxea;
gaur egunean, donostiarrarentzat
da egon-tokia, ugarte maitea”.

Zer erantsiko? Kolorezko bildumatxoan sartu ditugun hiru argazki eder hauek bekizkio irakurleari.



Bapo bazkaldu ondoren, *far niente* leunean, horra hor *adiskide* batzuk Dorretxearen aurreko aldean (2001).

Ezkerretatik eskuineta:

- Liburuaren egilea.
- Juan Mari Garzia Etxeberria, gure *Maîtrea*.
- Edelmiro Villanueva *Miro*; galiziarra, aspaldi honetan Uharteko baratzaina.
- Jone Forcada, liburu egilearen emaztea.
- Agustin Arana, basoa eskutan daukana. Erreenteriarra, *Adiskideen* arima urte hauetan.

- Carlos Criado, *Adiskideen* taldekidea.
- Antton Uzkudun, uhartezale bakartia, eta liburu honen pres-takuntzan funtsezko lagunzta emana.



Baina ezina litzaidake Luis Fernandez Mata sustatzaileari buruz paragrafo batzuk “huntü” gabe liburua amaitzea.



Goiko tabernan bi bisitari (1997 / IX / 10).

Ezkerrekoa Luis Fernández Mata; eta eskuineko... “asma zak, asma zak”...

Gainean ikurriña ez da sekula faltatu. Eta barra gaineko mahatsondoak, oraindik ere mahats-ale gozoen emale. Eta lehenagoko kapitulu batean, Ulibarri buruzagi karlistaren *Casa de la Parraz* mintzatzean aipatua.

Tabernaren atzean (hemen ongi ikusten ez den arren) Luis-en *traman-kulua* gordetzen da; “Massiel” asto-zaharraren segida *mekanikoa* hartu zuena. Nasatik tabernaraino ehunka botila, bokata, eta beste, igoaz, uhartezale guztion eskerrona merezi duena.

Bi gauza bakarrik *Massiel* buruz:

- 1) *Igeldo herrian* alogeratu zutela 1965-1972 urteetan;
- 2) Massiel bera, artista, kantari famatua bere garaian; eta oso irri- barre... horztunekoa, omen. Bego.



Guillermo Garcíak hartu zuen goiko taberna hau 1972 / 1977 urteetan.

1977 urtean, gaizki ez banago, goiko taberna zeraman Luis F.M.ak. Eta 24 urtez baliatu ondoren, iaz eta aurten, behekoa bakantrik atxekiko omen du.

Joera soziologiko azkar baten eraginez, gero eta jende gutxiago joaten da Uhartera. Eta joaten direnak, oro har, behean gelditzen omen dira. Batez ere mainatzeko asmoa dutenen artean.

Gazte bikoteak joaten dira. Baita familiak eta lagun-multzoak ere; gauza guztiak besotan eramateko gertu dauden ber.

Doazenek, hala ere, beheko tabernan hartzen dituzte krakadak eta edariak, eta gora jotzen dute. Bainaxarma aparta zuen goikoa, hetsita egoten da azkeneko bolada honetan. Eta honek zeukan bere *poesia punttua*.

Joerak eta ohiturak aldatu egiten dira; zaharrok hori onartzen lanak baditugu ere...

Anjel Isturitz pilotuak gauza bera uste du: orain dela 15 edo 25 urte baino askoz ere jende gutxiago eramatzen duela gaur egun, orain dela urte mordoska bat Aitona Julian-ek eramatzen zituenak baino.

Eta egia duela dirudi. 1893an, adibidez, 935 bisitari izan zituen Uharteak (ikus M.A. Sánchez Terry). Eta Uharte osoa omen zegoen larrosaz eta bestelako lopez gainezka eginda.

Ontzien kopurua ere oso jaitsi da.

1975ko udan, adibidez, 8 motora-txalupa ibiltzen ziren *Uharteak / Kaia* bidaia goizetik arratsera etengabe egiten. Mila bat lagun egunean joaten ziren orduan (piraguak, txalupak... eta igerilariak kondatu gabe). (Ik. Luis Murugarren, San Sebastián / Donostia, 1978; 142. orrialdean).

Han eta hemen sakabanatutako mahaiak, oro har egurrezkoak orduan, gainezka egoten ziren.

Uhartera txangoz joatea, modan zegoen. Besteak beste han, Donostia-ko hondartzetan baino "askatasun" handiagoa zegoelakoan. "Derrière les buissons" esaten dute frantsesek...

Orain urruti gaude zenbaki horietatik.


Berebilaren ugalketa izan bide daiteke gakoa. Bainaxuste faktore garbi bat ere badago: 1975z geroztik Bidasoako muga desagertuz joan da piskanaka, eta Iparraldeko eta Landetako hondartzak ez daude urrun. Azken hauek batez ere, luzeak, basatiak, bakartiak, pinadi azkengabeek mugatuak...



Eta honeteraz gero, Uharteari loturik bai, baina orain arte oso bidenabar baizik orrialde hauetan agertu ez diren batzuk gogoraziko ditut.

Anjel Isturitz hasteko, ehunka aldiz guztiok (ni barne, jakina) Kaitik Uhartera eraman gaituena. “Aiton Julian”en biloba, ez da hura bezala altzatarra. Donostiarra da, seme-alabak bezala. Emaztea du kaietakoa.

Donostian harrapatu nuen lehengoan (2003ko Ekainean). Eta hemen gaitu irakurleak Anjel eta biok. “Antxeta” eta bere gainerako txalupak hor daude, Uhartera abiatzeko prest.



Gure atzean, zuri-horian, askotan aipatu dugun “Donostia-ko Kontsulatua”.

Anjel-en buruaren ezkerrean ikus daiteke.




Arribizketako lanak Donostiako Kontsulatuak bultzatu zituen (VIII. Kap.). Arrobi-ko “Farola” ere bai, gaur “Torreón de Igueldo” bataiatua. Eta 1777z gerotzik, lehenengo Karlistada arte, itsastar jendearen laguntzan erabilia.

Beronen ordezkoak, hain zuzen, IX. Kap. ikusia (“Faro de Igueldo”), Arrobiko Farola zaharra ordezkatu zuen 1855ko Martxoaren 15an. Eta gaur egun turismo-gune ospetsua da.



Eta ondoko hiru argazkiotan dauka Kontsulatua (1920an eta 1988an). Azkenekoan Gaztelutik ikusia.





Ageri denez, desagertu egin dira kristalezko bi behatokiak; haue-tako bat atariaren gainekoa.

Baina aspaldiko urteetan mariñel jendea deitzeko eta norabide-tzeko jotzen zen kanpaia, hortxe dago 2003an.

Batimendua 1988an zaharberritu ondoren, pittin bat aldatu da. Bainan funtsean XVIII. mendekoa da. Aski du irakurleak kai aldera itzuli bat egitea, eta hantxe aurkituko du, ongi hornitua eta laguntzaile multxo batek azaldua, Donostia zaharreko lekuko isil hau.

1760an eraikia, 1766ko Ordenantzetan aipatzen da.

Bertan, bigarren solairuan, itsasoari buruzko liburutegi bikaina dago. Gutxitxo ezaguna; baina niretzat arrunt baliosoa.

Kanpai berdearen ondoan hauxe irakurtzen da: *Soi de el noble Consulado de esta ciudad. 1799.*

Biltegi bat zeukan; eta bertan kableak, sokak, kalabroteak, aingurak, eta abar, gordetzen ziren.

Ikusten dugun etxe horretantxe egoten zen, beti itsasoratzeko prest, *Txalupa Handia* izenekoa.

Uharteko lankide izana, hark bezala Donostiako itsas jendea gogorazten digu.



Gaineko aldetik argazki honetan ikus daitekeenez, 1813 aurreko kutsua dute murru horiek; eta etxartea korri daitezke gaur ere, baita eskailera ilun eta ezezagunak bisitatu ere.

Pitxi bat; baina donostiarrek merezi baino agitz gutxietsiagoa.




Eta orain gogora ekar ditzagun *Petit de Meurville* pintore-diplomatikoak utzi zizkugun margoak (kolorezko eraskinean beren hartin ikusgai).

Liburu honi dagokionez, hau azpimarra daiteke:

- *Paseo de los Curas* izenekoa. Kontsulatua ikus daiteke honetan, atzeko atea agertzen delarik.
- *Puerto de San Sebastián* izenekoa. Honetan dorre-etxea ikus dezakegu aurrekaltetik, ezkil-dorrea eta guzti, gaur duen itxuran. Eta Santa Klara Uhartea ezkerretan.


Txamarra gorriek eta idiek gainerakoa erasten diote, garai kutsua azkertuz.

Itsasotikako kresala bakarrik falta!




Irailean traineru estropadak: Uhartea begiratoki bikain.

Belauntzikoetan, aldiz, inor gutxi begira Uhartetik.
(Fototeka Kutxa)



Oroitzapenatarako argazki bat amaitzeko.



Uharte Ondarretatik (1946). Fototeka, 372-2195 (4)

Galtzak eta gonak, luze...

Nacional-katolizismoaren garaia ziren. Eta “bekatuaren toki madarikatuak” omen Ondarreta, Kontxa, Uharte, eta soina ageri era-kuts zitekeen lekuak oro.

Gabarroiak, mukurru ageri dira.

Uharte inguratzeko eraiki zen zubiko bost pilareak, oraino zu-tik.

Eskuinaldean arretaz begiratuz gero, berriz, *boteroa* ikus daiteke, bere salbamendurako batelean (arraunez, bai!), lehenengo garra-si etsia aditu zai...

Eta gainean Ramon Baron antigutarra, Ugalde edo Barraka zeritzon baserriko (gartzela ondoan hau, *Konporta* errekatxo kiratsaren ertzean).

Denak joanak, salma usainarekin batera itsaso zabalera ihesi.

Nahiz orduko lekukoen oroi menean betirako tinko eta bizi-bizi iraungo.



Uhartea eta Bertsolariak

Oso harrigarria da bertsolariek, itxura denez, inolako kezka edo garrantzirik ez erakustea *Santa Klara Uhartea*-rekiko.

Auspoa sorta osoan erreparatzen da hori.

Aita Apalategi-k prestatutako *Euskal Mutillak armetan* bilduma zoragarrian (*Auspoa 3*, 1961), aipatu ere ez da egiten Santa Klara.

Nahiz batzutan, eta 1876ko Urtarrilean bereziki, gerla ekintzak Donostian gertatu; **Bilintx** bertan hil izanak erakusten duenez.

Gai hauetan nagusi den A. Antonio Zabala-ri egin genion galde puntu honetaz; eta berak ere irizpide bera du: "Arritzeko da Santa Clara ugartea bertsolariak ez aitatzea. Neri beintzat ez datorkit burura" (gutunez, 2002ko Abuztuaren 2an).

Hala ere zerbaitxo aurkitu zidan, eta libur honetan baliokoa izan daitekeelakoan, kopiatu egingo dut, irakurlearen mesedetan. 1941ko estropadei buruz dator bertsoa, eta balizak Urgull-dik hasi eta Uharte aldera aipatzen dira: Loiola, San Juan, Hondaribia eta Orio.

Laurak txalupa kanbiatuta
bota dute suertia,
lendabiziko Loiolatarrak
iparretik irten dira;
gero San Juana ta Ondarrabiya,
Oriyok *isla* aldia,
leku ederra izan biar du
probatutzeko jendia.

Ikus, honi buruz, eta ondoko orrialdeetan, *isla / uharte* hitz bikoteari buruzko oharra.

“Gure UHARTE ezezaguna”

Ez dago dudarik. Izenburua aukeratzerakoan, *isla/irla* bikotea neukan batetik, Euskal Herrian (batez ere XIX. mendera arte erruz, are nagusiki ere, erabilia). Eta, bestetik, **ugarte/uhartea** bikotea neukan.

Eta uharte hautatu dut.

Zergatik? Laburki azalduko dut.



- 1- R.M. Azkue lekeitiarrak, bere herrian bertan txikitandik entzuten zuen [islíà]ren gainetik, hitz hauek idatzi zituen bere Hiztegi famatuau: “*ugarte: entre aguas* (B, G).- Parece que Larramendi fue el primero que extendió con mucho acierto esta palabra a significar isla” (II, 352).
- Horra hor niretzat balio handia duen irizpidea.
- 2- Larramendi, II,93 (Ed. Pío de Zuazua, San Sebastián, 1853).
- Isla:** ugartea, uribitartea. Lat. Insula.
- Bistan da, jatorrizko edizio osoan ere (1745), hitz bikote bera agertzen da.
- Isleño, insulaire: ugartearra, uribitartearra (II, 93).
- 3- Juan Ignacio Iztueta (1767-1845).
- Larramendi-zale porrokatua izanik, ezin pentsa urrun dabilkeenik:
- Isla:** ugartea
- Isleño: ugartearra, uribitartearra (I, 123)
- 4- Lhande (Paris, 1926). 1024. orr.
- üharte:** S, (Foix), île
- 5- Larraxket, Dict., 212. orr.
- [ühárte], île, sens inconnu du peuple.
(*Le Basque de la Basse Soule Orientale*, Paris, 1939)
- 6- Mizpiratzegi, Dict., Barkoxe, 1936. 58. orr.
- île:** isla, hurarte
- 7- Alfontso Irigoien. **isla/irla** vs. **ugarte/uharte**-ren erabilpena kondairan barrena erakutsiz, aipamen mordo bat dakar. Eta lekeitiarrek aurrean daukaten *San Markos* deritzonaz islía diotela gogorazten du.
- Ikus haren txostena honi buruz, xeheki dokumentatua: *De re philologica linguae uasconiae*, V, 1995 (279-289 orrialdeetan). Eta ororen buru hau dio: “isla hitza erabiltzeagatik ez dugu(la) lotsa izan behar”.
- Barka biezagu bizkaitar jakintsuak, kasu honetan joera sozio-logikoari lehentasuna eman badiogu.
- 8- Ibon Sarasola - isla hitzaz gain, Hegaoaldean ugarte ere era-bilia izan dela dio. Batez ere 1745tik aurrera. (Kontutan har

beza irakurleak 1745an, hain zuzen, kaleratu zela Larramendiren Hiztegia).

9- Elhuyar Hiztegia, 1996.

Miren Azkarate, Xabier Kintana eta Xabier Mendiguren Bereziartu euskaltzainek zuzendua. 338. orr.

1 - isla; ik. irla

2 - isla; ik. islada.

islada: 1- reflejo, silueta. Mendien islada uretan: reflejo de los montes en el agua.

2: (hed.) reflejo.

10- 3000 Hiztegia. Bilbo, 1996.

G. Aurrekoetxea, R. Badiola, L. Baraiazarra, J.L. Goikoetxea, Tx. Solabarrieta, P. Uribarren taldeak zuzendua.

isla: 1- perfil de los montes

2 - reflejo

3 - silueta, imagen lejana, tenue, debilitada

11- VOX Hiztegia (1997, 2 liburuki)

Zientzi Zuzendaria: Ibon Sarasola

irla: iz. Ipar: uharte (361)

isla: iz., (1) uharte

(2) isla(da), mendien hegia

uharte (629): ozeano, itsaso, aintzira, ibai... baten urek inguratzen duten lur eremu iraunkorra.

12- Euskal Hiztegi Modernoa - Elhuyar, 1994, 2000.

1 - Zipre deritzon uharte edo isla

2 - mendien isla uretan, 483.

uharte (897)

1 - bi ibaik bat egiten duten lursail edo lur eremua

2 - alde guztietatik inguratuta dagoen lur eremu iraunkorra: Galapagos uhartea.



Isla euskal hitz berak batzutan erd. *isla*, île adieraztea; eta beste batzutan, berriz, erd. *silueta*, silhouette adieraztea, koloka egoeran egotea da. Ekonomiak eta zehaztasunak besterik eskatzen zuten.

Eta horixe da gertatu. Isla, islada, erd. *silueta*, *perfil*, adierazteko erabiltzen da gero eta maizago. Eta, era berean, urez inguratutako edozein eskualde iraunkorri, uharte esaten zaio.

Orain dela urte mordoska bat *Santa Klarako Adiskideen Elkartea sortu zutenek*, UGARTE bataiatu zuten. EZ ISLA.

Badakigu, bai, badagoela aukera horretan purismo punttu bat. Bainaz hizkuntzen bilakabidean Sozio-linguistikak agintzen du. Eta politikaz eta nazio-projektuaz kutsatutako nahiak, eragin handia dute.

Joera aspaldidanik nabaitzen da Euskal Herrian maila askotan.

Donostiako *Puertas Coloradas*, nola ez dakigula, Ategorrieta bihurtu zen. Era berean, euskaran sustraituta zegoen *pintore* hitzari, *margolari* nagusitu zaio. *Izkiriatiu* hitz jatorrari, *idatzi* sabin-diarra; eta *izkiriatzaileri*, *idazole*. Bidenabar, izendatuko ez dudan batek, eskritore proposatu zuen...

Gauzak ez dira beti oso egokiro egin. Bainaz erdaltzalekeria nabarmenari, halako euskal “kathareketa” jarraitu zitzaison.

Vitoria-ri, ahaztutako *Gasteiz* gailendu zaio (/h/ gabe, dena dela). *Estella*-ri, *Lizarra*. Eta *Salvatierra*-ri, *Agurain* (hau ere /h/ gabe).

Guk ezagutzen ditugun herri-pizkunde guzti guztietan gertatu izan dira horrelako joerak.

Eta Euskal Herrian ere bai.

Betor, beraz, guk ere “lotsarik gabe”, Santa Klara UHARTEA.



INSCRIPCIONES															
<p>S. N. S.</p> <table border="1" style="width: 100px; border-collapse: collapse;"> <tr><td>Tomo</td><td>161</td></tr> <tr><td>Líto</td><td>161</td></tr> <tr><td>Sección</td><td>2º Ano 7</td></tr> <tr><td>Folio</td><td>1254</td></tr> <tr><td>Fincas</td><td>4.100</td></tr> <tr><td>Inscd.</td><td>8</td></tr> <tr><td>Anot.</td><td></td></tr> </table>	Tomo	161	Líto	161	Sección	2º Ano 7	Folio	1254	Fincas	4.100	Inscd.	8	Anot.		<p>1. Rústica — Finca denominada "Isla de Santa Clara" situada en la Bahía de la Concha de esta Ciudad de San Sebastián, con una superficie de siete hectáreas y cincuenta áreas, cuyos linderos son: al Norte el Mar Cantábrico; al Sur, Este y Oeste, la Bahía de la Concha, identificada catastralmente en el Polígono 16, Parcela 1; siendo el valor de la misma, según tasación pericial de trescientas setenta y cinco mil pesetas. Existe en dicha Isla, dos edificios construidos por el Estado, uno destinado a faro con una superficie total de setecientos ocho metros cuadrados y el segundo de Almacén con superficie de veinticuatro metros cuadrados, siendo su valor por tasación pericial de doscientas setenta y cinco mil ochocientos ochenta pesetas, y diecinueve mil cuatrocientas cuarenta pesetas, respectivamente. Se encuentra sobre de cordada serranilla y pertenece al Estado desde el año mil novecientos setenta y ocho en constando los edificios contenidos en la misma a solicitud al Ministerio de los Pobres — Dirección General de Fincas y Bienes Marítimos, sin que conste título particular o trámite, y me remitiendo informe a nombre del Estado en el denominado trámite personalizado de "El Trámite Marítimo", con este trámite expedí de mi este capitulo con fecha veinticinco de Octubre de mil novecientos setenta y ocho por don Juan M. Láinez Moreno jefe de la Sección del Patrimonio del Estado en la Delegación de Hacienda de Guipúzcoa y en el Venerable del Sumisimo Señor Obispado de Vitoria, remitiéndole copia de la escritura de compra de la Isla de Santa Clara y de la escritura de la que se deriva su situación, quedando archivada en el expediente número 1114 del Diario 153 quedando archivada en el de los ejemplos con el número 87 en el legajo corriente de documentos públicos Exento del impuesto de Sebastian año de Noviembre de mil novecientos sesenta y ocho.</p>
Tomo	161														
Líto	161														
Sección	2º Ano 7														
Folio	1254														
Fincas	4.100														
Inscd.	8														
Anot.															

Santa Klara Ugartearen Adiskideen bidez lortua

Uhartearen deskribapen ofiziala

Propiedad 206. 145 / 88.

Rústica —

Finca denominada "Isla de Santa Clara", situada en la Bahía de la Concha de esta ciudad de San Sebastián, con una superficie de siete hectáreas y cincuenta áreas, cuyos linderos son:

- al Norte el Mar Cantábrico;
- al Sur, Este y Oeste, la Bahía de la Concha,

identificada catastralmente en el Polígono 16, Parcela 1; siendo el valor de la misma, según tasación pericial de trescientas setenta y cinco mil pesetas.

Existe en dicha isla dos edificios construidos por el Estado: uno destinado a faro, con una superficie de setecientos ocho metros cuadrados y el segundo a Almacén, con superficie de veinticuatro

metros cuadrados, siendo su valor por tasación pericial de doscientas setenta y cinco mil ochocientas pesetas, y diecinueve mil cuatrocientas cuarenta pesetas respectivamente.

Se encuentra libre de cargas y servidumbre, y pertenece al Estado desde el año mil ochocientos sesenta y cuatro; encontrándose los edificios construídos en la misma, afectados al Ministerio de Obras Públicas — Dirección General de Puertos y Señales Marítimas; sin que conste título por el cual la adquirió y no constando inscrita a nombre del Estado, ni al de ninguna otra persona o entidad conocidamente.

Esta certificación expedida en esta capital con fecha venticuatro de Octubre de mil novecientos sesenta y ocho por D. Juan Motabes Moreno, Jefe de Sección del Patrimonio del Estado en la Delegación de Hacienda de Guipúzcoa, con el Visto Bueno del Ilustrísimo Señor Delegado de Hacienda, se solicita la inscripción de la descrita finca a nombre del Estado, según así resulta de los datos obrantes en dicha oficina y de las fichas de Inventario de fincas rústicas e inmuebles de aquél.

En su virtud inscribo la dicha finca de este número a favor del Estado, al amparo del artículo doscientos seis de la Ley Hipotecaria, pero con las limitaciones del doscientos siete de la misma.

La certificación de que se hace referencia, ha sido presentada por duplicado en esta oficina a las diez y diez minutos de hoy, según el asiento 1114 del Diario 123, quedando archivado uno de los ejemplares con el número 97 en el legajo corriente de documentos públicos exento del impuesto.

San Sebastián, ocho de Noviembre de mil novecientos sesenta y ocho.

Txabolaren tasaketa

E

En 26 de Marzo de 1872
 manifiesta el Ingeniero
 Jefe de las provincias Vas-
 congadas que en vista de la
 orden de la Dirección general
 de Obras públicas, del 1º de
 Marzo de 1851, en que se
 prevenía que en la Isla de
 Santa Clara no haya más
 establecimientos que el faro,
 se quitaron el año último
 los restos de los pabellones hui-
 cos y demás que existían,
 quedando solo una casita
 constituida en 1850 por una
 sociedad que arrendó tem-
 poralmente la casa al entonces
 propietario de la Isla. Esta
 casa está próxima al faro
 y la usa el Hombre con aquella
 cencia de sus dueños; pero para
 cumplimentar la orden citada, y

Ministerio de Fomento (1872)

Expediente sobre la compra de una casita en la Isla de Santa Clara (San Sebastián) para el faro de la misma.

El 26 de Marzo de 1872 manifiesta el Ingeniero Jefe de las Provincias Vascongadas que, en vista de la Orden de la Dirección General de Obras Públicas, de 1 de Marzo de 1871, en que se previene que en la Isla de Santa Clara no haya más establecimientos que el Faro, se **quitaron el año último** los restos de pabellones, kioscos y demás que existían; quedando solo una casita construída en 1850 por una Sociedad que arrendó temporalmente la caza al entonces propietario de la isla.

Esta casa está próxima al faro; y la usa el torrero con aquiescencia de sus dueños.

Pero para cumplimiento de la orden citada; y comprendiendo el Ingeniero de Guipúzcoa la necesidad de su adquisición por el Departamento de Obras Públicas para que sirva de desahogo al faro, tasó dicha casita en 200 pesetas; proponiendo al representante de la Sociedad de Caza cedan la propiedad de la misma a la Dirección General de Obras Públicas por 175 pesetas.

El cual contestó en carta de 18 de Marzo último, cuya copia remite, aceptando el precio citado.

Nota:

El negociado opina de conformidad con lo propuesto por el Ingeniero Jefe de las Provincias Vascongadas, que procede la compra de la referida casa; toda vez que solo dista del faro 5 metros; y puede servir de desahogo a aquel, que solo tiene dos piezas por vivienda.

Cargando su importe al presupuesto de conservación de faros.

Dando orden al Ingeniero Jefe para que autorice la escritura de compra; pasando a ser propiedad del Estado la precitada casa. Quedando libre de toda propiedad los alrededores del Faro de Santa Clara.

S.M. resolverá

Madrid, 6 de Abril de 1872.

Txabolaren salmenta (1872)

180.- L = 79 - 3
OBRAS PÚBLICAS.
CUERPO NACIONAL
DE
INGENIEROS DE CAMINOS, CANALES Y PUERTOS.

PROVINCIAS VASCONGADAS.

Número 423.

NEGOCIADO

de —



AHN

Signature FC 15223

Al ingeniero encargado del servicio de la provincia de Guipúzcoa, en fecha 1% del actual, me dice lo siguiente:

Al expediente dice lo siguiente:

"Dijo en conocimiento de Q. S. que en el dia 26 de junio último se formalizó la escritura de venta de la isla pro pia de la "Sociedad de Garantías" que radica en la isla de Santa Clara, de cuya documento se mito copia legalizada. = Se ha retrasado algo el cumplimiento

Lamsfus-en bitartez lortua.

Obras Públicas. Negociado de Faros, N. 423

Signatura, AHN, FC 15223

Ilmo. Señor:

El Ingeniero encargado del servicio de la Provincia de Guipúzcoa, con fecha 12 del actual, me dice lo siguiente:

Pongo en conocimiento de V.I. que en el día 26 de Junio último se formalizó la venta de la caseta propiedad de la *Sociedad de Cazadores*, que radica en la Isla de Santa Clara, de cuyo documento remito copia legalizada.

Se ha retrasado algo el cumplimiento de la orden del 16 de Abril próximo pasado, en que se ordenaba la adquisición de la casita, por el motivo consiguiente a llenar todas las prescripciones de la Ley Hipotecaria vegente.

Los gastos de adquisición y escritura están satisfechos, y se incluyen en los de conservación de faros durante el pasado mes.

Lo que tengo el honor de transmitir a V.I. para su conocimiento, incluyendo a la vez copia de la escritura de referencia.

Dios guarde a V.I. muchos años

Bilbao, 18 de Julio de 1872.

AÑO DE 1871

MINISTERIO DE FOMENTO.

OBRAS PUBLICAS.

NEGOCIADO

PROVINCIA DE *Guipúzcoa*

Expediente sobre
compra de una casita en la isla de
Santa Clara (P.º Sebastián) para el faro
de la misma.

Orendain Notariaren dokumentua

9 orrialde dituen izkribu honetan funtsatzen da VI. Kapitulua.
Hasera baizik ez dugu eskaintzen hemen.

Y José Francisco Orendain, Notario
Real y público del Colegio del Distrito
de Pamplona y vecino de esta Ciudad de
San Sebastián = Certifico y doy fe: que
el Francisco Zafarga, Ingeniero de caminos,
canales y ferrocarriles encargado de esta Provin-
cia, y vecino de esta Ciudad, me ha pue-
lo de manifiesto una comunicación de lo
siguiente = Cobras públicas = Cuer-
po nacional de ingenieros de caminos,
canales y ferrocarriles = provincias pasco-
gadas = Treinta y doscientos cincuenta y
seis = Asociado de Zarz. = El Ultm.
Cónsul. Director general del ramo. confe-
cha diez y seis del actual, me dice lo
que sigue = El Exmo. Señor Ministro
de Fomento, me dice con esta fecha lo
siguiente = Ultm. Señor: En vista de lo
que resulta en el oficio de su formado
sobre la posibilidad de adquirir una

Arribizketa toponimoaz

Zoritzarrez ez dakigu Erdi Aroan nolakoa zen toponimo honen forma.

Angeles Libanoren *Onomasticon Vasconiae* zerrenda zehatzean (4 liburuki: 14, 16, 19 eta 20) ez da ageri.

Eta aurrez aurre dagoen *Arrobi* ere ez.

Baina *Arro* hitzak gaur ere *amildegia* bizkaieraz; Azkue, I, 78, *barranco*.

Baita, noski, *har* (= piedra, pierre), gehi *hobi* (= concavidad, creux), Azkue II, 93.

Eta *harrobi* (= cantera, carrière). Eta Donostiako *Arrobi* horretan, harrobiak izan dira, gorago esan dugunez, eta *harria* erruz atera.

Baina gure harira itzuliz, *harribi*-ren atzean, *har* eta *ibi* dago.

Honek Santa Klaren *uhartetasuna* zalantzan jartzera bideratzen gaitu... Behin eta berriz lehorrez iristeko *ibi* guztiak porrot egin dutela erakutsi ondoren...

Isildu egin beharko ote?

Idazkera-ahoskera modernoagoetara jo behar dugu.

Eta kontutan har ditzagun dokumentatzen diren formak.

Bidenabar harri-ustiaketa hori gogorazten du Donostia zaharreko kontuetan oso ikasia zen Rikardo Izagirrek: *se denunció a quienes sacaban piedra para lastre entre Arribisqueta y la Isla de Santa Clara* (Estudios, 73)

Hain zuzen ere, autore honek bi forma hauek ematen ditu:

1 / Arbiketa (18. orrialdeko planoan, adibidez). Ikus *Estudios sobre la Bahía de San Sebastián* - Ed. Vasconia, San Pedro Pasaia - 1933). i gabe.

Hortik aurrera, i agertzen da beti: **Arribizketa / Arribisketa**.

Eta honetaraz gero, ohar fonologiko hau egin behar da.

Donostia inguruko toponimian eta mintzairan (baita bizkaieraz, eta Gipuzkoako kostaldean ere dexente) z eta s nahasten direla, berdin ahoskatzen direlako. [s] apikalaz, alegia:.. *esango isut*. Nahiz s/z berezten diren lekuetan *esango izut* ahoskatu.

Hots, **Arribisketa** transkribaketa topatzen dugu 1606ko Otsailaren 10an: *se denunció a quienes sacaban piedra para lastre entre Arribisqueta y la isla de Santa Clara Izagirre*, 71).

1887an Arribisqueta dokumentatzen da Izagirre beraren arabera.

1629ko Apirilaren 6an, Donostia-ko Memorial-ean *monte de Arribisqueta* irakurtzen dugu (Izagirre, 43).

Eta handik egun batzutara, Maquedako Dukearen Txostenean, hau irakurtzen dugu: *monte de Arribizqueta*.

Donostiako Toponimia xeheki landua duen Josu Tellabidek, bental- de (*Donostiako Toponimo Erregistroa*, Donostiako Udala, 1995), **Arbizketa** hobesten du; nahiz z/s ahoskera guztiak aipatu, baita *Abrisketa* ere.

Azkeneko argudioa: *Registro de la numeración de las casas... realiado por el Ayuntamiento de S.S. en Abril de 1862* (ikus nire *Eraskin Toponimikoa, 23 orr., Antigua 1900 luburuan*), *Ibaeta, 23 etxea, Arbizketa* irakur daiteke (295).

Hori guztia dela-ta, *Arribizketa* hobetsi dugu.

Donostia zaharra tonbolo izana

Beharbada, I. Kapitulua irakurri ondoren ere, batek edo bestek ez du guztiz irentsia Urgull uharte izan zenik.

Edo, bestela esanda, Donostia zaharra tonboloa izan zenik.

Horien zerbitzutan hona hemen XIX. mende bukaeran ateratako argazki hau.

Zinez, urek ez dute elkar ikutzen.

Baina *tonbolo-tasuna* ez da, nuk uste, batere sineskaitz gertatzen.

Fototeka Kutxa



BIBLIOGRAFIA

— I —

- SORONDO / LIZARRALDE. *Ermitas de Guipúzcoa* - Barandiaran Fundazioa, 2000.
- JAKIN. *Natur Zientziak Hiztegia* - Arantzazu, 1976.
- Juan Bautista OLAZABAL. *Quién destruyó San Sebastián*, 1973.
- INGEBA. *Geografía Histórica de San Sebastián*. San Sebastián, 1984.
- L. PEÑA BASURTO, etab. *San Sebastián en la Prehistoria y la Protohistoria*, San Sebastián, 1963.

— II —

- Alfontso IRIGOIEN. *De re philologica Linguae Vasconum*. 5 liburu, 1986-1995. Bilbo, Autorea bera argitaratzale.
- TXILLARDEGI. *Antigua 1900*. Kutxa, 1992.
- Serapio MUJICA. *R.I.E.V.* 1935.
- J. COROMINES, J.M.; Jimeno JURÍO eta Patxi SALABERRI iker-tzaileen ikerlanak, erabat kontutan hartzekoak euskal toponimiaaren alorrean.

— III —

- Krispin BEOBIDE. *Asisko Loria*. Auspoa, 61, Tolosa.

— IV —

- PIÑEIRO, ORELLA, SÁEZ GARCÍA. *Documentos Cartográfico-Históricos de Guipúzcoa I.* San Sebastián, 1994.
- PIÑEIRO, SÁEZ GARCÍA. *Documentos Cartográfico-Históricos de Guipúzcoa II.* San Sebastián, 1999.
- AGIRRE SORONDO. *Ermitas de Guipúzcoa.* San Sebastián, 1994.
- Juan José ARBELAIZ. *Grabados y Planos de San Sebastián.* San Sebastián, 1993.
- José Ramón LUZURIAGA. *Plano de San Sebastián.* San Sebastián, 1979.
- Luis MURUGARREN. *Boletín de Estudios Históricos de San Sebastián, 30.* 1996.
- Joaquín ORDÓÑEZ. *San Sebastián en 1761 - Ayto.* San Sebastián, 1964.
- Miguel Angel SÁNCHEZ TERRY. *Faros Españoles del Océano, - 1999.*
- Antonio IDIÁQUEZ eta J. Ignacio TELLETXEA IDIGORAS. *San Sebastián 1719.* Camino Institutua, San Sebastián, 2002.
- Elena LEGORBURU. *El Monasterio de San Bartolomé.* Astigarragako Udala, 1999.
- Ricardo DE IZAGUIRRE. *Estudios acerca de la Bahía de San Sebastián.* Editorial Vasconia. Pasajes San Pedro, 1993.

— V —

- Fermín MUÑOZ ETXBEGUREN. *Edateko ura Donostian.* Editorial Añarbe Partzuergoa, 2003.

— VIII —

- Ricardo DE IZAGUIRRE, Jadanik aipatua.

— IX —

Donostiako Erroldak.

— X —

